

TOKIKOM

2016ko ekaina | 160. zenbakia

aita!

txorierriko a



Zamudio KE

Txapeldunak!

MIKEL GOÑI ORKATZ ALBERDI LOIUKO JAI AK TXAKUR LAGUNAK



Erdu eta gozatu

LOIUKO



UDALA

Jaietan
euskaraz blai!



AURREGOITI
JATETXEA

Lauroeta etorbidea, 27
48180 Loiu-Bizkaia
T-Faxa: 94 453 24 40
restaurantaurregoiti.com



Altzari

EBANISTERIA · CARPINTERIA, S.L.

Horma-armairuetan, Liburutegietan eta
Neurrira Egingako Altzarietan Espezialistak

Alain Pomposo Zarate www.altzari.com
655 70 47 86 altzari@altzari.com

- Horma-armairuak
- Liburutegiak
- Neurrira Egingako Altzariak
- Ateak eta Solairuak
- Oheburukoak eta Komodoak
- Altzari Funtzionalak
- Erradiadore-estalkiak
- Bainugelak eta Sukaldeak
- Arotzeria oro har
- Erreformak

Belako Elkartegia mod. 203-2 - 48100 MUNGIA - Tel-Fax: 94 674 01 41

elekma

URRATZEREN BAT DUTEN ETXETRESNA ELEKTRIKO BERRIAK
TELEBISTAK ETA ETXETRESNA ELEKTRIKO TXUKIAK

Lehenengo markak • Preziarrik onenak
BOSCH, SIEMENS, BALAY


Txorierri etorbidea, 25-3.N
48180 Loiu
T: 944 539 232
www.elekma.es



AGROLOIU

DENA BASERRIARENTZAT

946053450



Zabaloetxe et., 12 / 48180 LOIU

BATZOKI


LOIU



Eguneko menua
Asteburuko menua
Menu bereziak
Bazkariak, enkarguz
Hamburgesak
Plater konbinatuak
Anoak
Otaratekoak



Abadetxe kalea, 8
LOIU
Tel. 94 612 95 35

-  **4** Eritxiak
-  **5** Gutunak
-  **6** Laburrak eta albisteak
-  **11** Irudietan... Virginia Largo, uretako tximeleta
-  **12** Gurean izan da... Mikel Goñi, pilotaria
-  **14** Gaztea eta... Orkatz Alberdi, Kolonbian
-  **16** Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea
-  **18** Zamudio KE
-  **22** San Pedro-Santa Luzia Loiuko jaiak
-  **25** BAN
-  **26** BBK Music Legends Festibala
-  **28** Nekazaritza ekologikoa
-  **30** Taldeak/Elkarteak... Txakur Lagunak
-  **32** Berbalagunen txokoa
-  **34** Teknologia... Gu eta robotak
-  **35** Aikorrizketa... Euskarak bere egin nau
-  **36** Sukaldaritza
-  **37** Denborapasa
-  **38** Agenda



12 Mikel Goñi pilotaria



22 San Pedro-Santa Luzia Loiuko jaiak



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

 **Bizkaia**
foru aldundia
diputación foral



diruz lagundutako aldizkaria

aikor!
txorierriko aldizkaria

Argitaratzailea: TOTOAN,
Txorierriko Euskara Elkarteen
Federazioa (Lagatzu, Zorritzetan,
Arrekikili, Tximintx eta Altzora)
Tel.: 94 452 34 47 / 688 86 41 35
aikortxori@aikor.com /
www.aikor.com

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Maite Lekerika, Gaizka Eguzkitza, Juan Luis Goikoetxea
eta Aritz ta Nagel

Kolaboratzaileak: Jon Ander Rola, Belen Gana, Idoia Andrés, José María
Celador, Xabier Díaz, Josune Aurrekoetxea Aperribai, Jon Goikouria
Larrabeiti, Oihana Astobieta eta Jose Angel Mentxaka

Zuzentzaileak: Alberto Mtz. de la Cuadra, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi (686 58 92 38)

Banaketa: Egunon

Maketatzailea: Gaizka Eguzkitza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 7.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322



AIKOR! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esa-
nen edota eritzien erantzukizunik.

Urtero, Gabonetan Olentzero gure etxera etortzen den bezala, niri ere urteko garai bertsuan heltzen zait AIKOR! aldizkariaren deia iritzi artikulatu bat egiteko eskariaz. Erronka zirrargarria izaten da niretzat. Hilabete osoa pasatzen dut txinparta piztuko didan ideia topatzen eta adi egoten natzaie eguneroko albisteei eta inguruan gertatzen denari. Aurkitzen dudanean, gurean gertatzen ari diren gauzekin lotzen ahalegintzen naiz eta mezuren batekin bukatzea izaten da nire helburua.

Aurten, iaz bezala, maiatza inguruan jaso dut zorioneko deia. Iaz ez nuen arazorik eduki gaia aukeratzeko, kopako finalera joateko aukera izan nuelako eta bertan bizitakoa kontatzea aproposa iruditu zitzaidalako. Aurten ez naiz joan, baina finalaren inguruan esandakoak piztu zidan artikulatu honetarako txinparta, aurten ere zerbait debekatzea zelako batzuen ardura nagusia (iaz txilibituak, aurten esteladak). Albistea entzun nuenean sutu egin nintzen, betikoek herrien asmoak eta ametsak zapuzten ari zirelako

Txistulin

berriro. Pentsatzen hasi nintzen zer gertatuko ote zen esteladak debekatuz gero: jokalaria ateratzen ausartuko ote ziren (geureak ikurrinarekin egin zuten bezala), zein trikimailu erabiliko ziren zelai barrura sartu ahal izateko, beste ikurren bat eramango ote zuten (eskoziarrenak eramatea pentsatu zutela entzun nuen), nola ibiliko zen polizia esteladen bila.

Burura etorri zitzaidan, orduan, Txistulin. Txistulin izan zen Francoren garaian Asuako kuartelean zegoen guardia zibil baten ezizena. Berak gaur egun esteladekin duten obsesio berbera ei zeukan txistuarekin, eta jairik jai ibiltzen zen txistua jotzen ari zirenen atzean, berarentzako txistua separatismoaren sinboloa, gure nortasunaren adierazpidea zelako. Adin bateko txorierritarrek berarekin gertaturiko milaka anekdota dituzte kontatzeko.

Lagatzukook geure buruari jarri diogun aurtengo erronka antzezlan herriko bat egitea izan da (200 antzezletik gora).



JON ANDER ROLA
(Irakaslea)

Eta antzezlan horretako pertsonaietako bat gizon xelebre hau izango da. Aipatu bezala, beti saiatzen naizenez mezu batekin amaitzen, hona hemen gaurkoa: ekainaren 25ean Zamudion egingo dugun herri antzezlanera, Artepen artea. Zamudion geurea, euskera, denok gonbidatuta zaudete.

Gure hizkuntza gero eta gehiago hartzen da kontuan. Orain, iragarki politikoetan EUSKARAREN ALDE agertzen da PP bera ere. Hauteskunde garaian, psikologian asko ikertu eta sakontzen dute guztiek, eta lehen pentsaezina zena, hara! Orain alde agertzen dira. Seinale ona. Aprobetxatu beharko genukeen momentua da hau, baina, nekatuta ere bagaude, urteotan, jo eta ke, gure hizkuntza eta bere eskubideak aldarrikatzen ibiltzeaz. Bai, aurrera egin dugu: D eredua guztiz ezarrita. Baina, ikasleak DBHra joatean, ulermenean bikain, baina hutsuneak erabileran. Horretan, nahikora ailegatzen direnak gutxi izaten dira. Gainera, entzumen lantzeko, oraindik aukera gutxi daukate inguruan.

Gauzak hobetuz doaz



BELEM GANA
(Irakaslea)

Bestalde, Euskararen titulu homologatuekin, Europakoetara berdinduta gaude. Tituluak motibatzen ditu ikasleak lana lortzeko. Eskerrak beste ikasle batzuk euskaltegiara datozen ikastera, seme-alabekin edo lagunekin euskaraz berba egiteko. Euskaraz gero eta jende gehiago bizi da. Hala eta guztiz ere, badago beste mundu bat gure artean, non euskara eta euskaldunak ikusezinak garen edo, geurean tematuta gauden gogaigarriak baino ez garela pentsatzen jarraitzen duten.

Herri bat gara, gure hizkuntzak gure izaera indartzen du, indarberritu gaitetzen eta aurrera lagunak!



Zeure eritxia agertu gura badozu, gutunen atal hau zabalik daukazu. Ahalik eta eritzi gehienek lekua euki dagien, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta nortasun agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezkerro, AIKORI!-ek bere esku dauka horretarako eskubidea. Zure eritxia aginduteko helbidea: Totoan, Aresti kalea 2, 48170, Zamudio edo aikortxori@aikor.com.

Grabitazio-uhinen aurkikuntza sekulako aurrerapausoa izan da ikerkuntza eta garapen lanetan dabilen zientzialarien iritzi; edo hori da helarazi diotena mundu ez zientifikoari, behintzat. Gaur egun, ehunka dira teoria horren inguruan burubelarri dabilen zientzialariak, baina aipatutako teoriaren aitzindaria pertsona bakar bat baino ez omen da: Albert Einstein.

Otsailaren 11n kaleratu zuten grabitazio-uhinen aurkikuntzari buruzko berria; kasualitateak nolakoak diren, Emakume Zientzialarien Nazioarteko Egunean bertan. Einsteinek bere teoria guztiak berak bakarrik garatu zituela baieztatzea ausartegia dela iruditzen zait, are gehiago, grabitazio-uhinen existentzia berak bakarrik frogatu zuela esatea, aurreko batean AIKORI! aldizkariko artikulu batean adierazten zen bezala.

Zientzialari alemaniarraren emaztea, Mileva Maric, ezkutuko zientzialaria izan zen, beti senarraren itzalpean. Etxekoandrea baino askoz gehiago izan zen emakume hura: Einsteinen konfiantzazko la-

Mileva Maric modan dago

guntzailea, laborategi lanetan; eta Zuricheko Institutu Politeknikoan ikasten zuen emakume bakarra, non bere senarra izango zena ezagutu zuen. Teoria eta frogari daude Einsteinen ikerkuntza lan askoren atzean emakume serbiarra zego-



ela berresten dutenak. Hala ere, gai honek itzelezko mesfidantzak sortu ditu zientzialarien munduan, harik eta tabu bihurtu den arte.

Honekin guztiarekin ez dut esan nahi Einstein ez zela zientzialari ikaragarria izan, ezta gutxiago ere. Aitzitik, Mileva Maricen izena historian gal ez dadin eta bere lana goraipatzeko asmotan, informatzeko eta irakurtzeko gonbidapena luzatzen dut. Eta historian zehar arlo honetan emandako genero- eta klase-zapalkuntzaren inguruan dauden hamaika dokumentu aztertzeke gonbidapena ere bai, merezi du-eta.

Hortaz bada, zientzialarion oinarria eszeptikoak izatea den heinean, lan esparru honetan sortzen diren albisteak eta irakurgaiak ere lasai eta astiro aztertu beharrekoak direla uste dut, bakoitzak bere iritzia sortuz.

Jagoba Jauregi Basterretxea

Zirikada politikoak gaur, lagunarteko hitzarmenak bihar

Morez zipriztindutako telebista-kate jakin bateko arrastiko tertulia politiko batek behin eta berriro errepikatutako kanpaina-iragarkia denon ahotan dabil azkenaldian, zeresan handia eman ei duen seinale. Edozelan ere, zalantzarik ez dago eragina azpimarragarria dela xedea bestelakoa izan arren. Alde batetik, alderdiaren dohainak goraipatu barik iraindu egin du politikari eta, beraz, sentsibiltate ugari. Bestetik, hautesleak engainatu gura izan ditu aldeko bozka eman liezaiokeen gizartea desegoki irudikatuz, spotak darakuskien pertsonaiak eta giroa alderdiaren ideiekin bat ez datoz eta. Hots, herriari hurbildu nahian, testuinguru penagarria eskaini du ikuslea bat-batean

eskuin jaioberriak atzoa apurtuko duen geroa dakarrela konturatu dadin.

Aipamenik ere merezi ez duen alderdi politikoak zera aurkezten du: eginahalak eginagatik gogaitutako guraso presua eta langabezia dagoen gizonezko nazkatua, besteak beste, barra alboan bizimodu petralaz kexaka. Batak lan larregi duela, bestea lana topatu ezinda dabilela... Dena dela, duela gutxi agertu den politikari motosdun baten antza daukan alferrontzi ipurterreak ematen du arreta gehien.

Ama lanpetua ere bada deigarria. Iragarkiak ardatz dituenen artean emakumezko bakarra ez ezik (eduki esanguratsua gizonezkoei baino ez dagokielako),

kontzilia dezaketenen ordezkaria ere bada, baina horretarako gezurretan dabil. Izan ere, umearen kargu hartu duen bikotekideari –ziurrenik aitari– atondu beharrekoak atondu badizkio ere, aita ez da gai bere kontura konpontzeko; ondorioz, amari deitu dio jagoten lagun diezaion. Itota, andrea barran bertan jesarri eta oraindik ere batzartu behar duela diotso lasaitzearren.

Horrelako irudia eman nahi izan du besterekin akordioak kosta ahala kosta sinatzekotan izan den alderdi politikoak, makurra eta, batez ere, lotsagarria. Zorionez, jarduneko presidentea bera aho batez maiseatzeari ekin dion iragarkia argitaratu izana garbaitu zaionez gero, atzera bota du. Pentsaerak pentsaera, bistan dago berebiziko hanka-sartzea izan dena eta, horregatik agian, iruzkitzeko aukera kendu zaio bideoari.

Azler Garcia Palomino

Argazki lehiaketa, Altzoraren eskutik

Sondikako euskara elkarteak argazki lehiaketa antolatu du seigarren aldiz. Aurkeko urteetan bezala, gaia "Oporrak" da eta argazkiak irailaren 1etik 23ra bitartean bidali behar dira altzora.ee@gmail.com helbide elektronikora.

Parte hartzaile bakoitzak gehienek argazki bi aurkeztu ahal izango ditu. Argazkiek jpg formatua eduki behar dute eta datu hauek ere zehaztu behar dira: egilearen izen-abizenak, telefono zenbakia eta helbide elektronikoa. Era berean, argazkiak noiz eta non atera diren zehaz-

tu behar da eta, nahi izanez gero, izenburua edo lerro batzuk idatzi ahal dira. Irabazleak sari bi edukiko ditu aukeran: bazkari bat bi lagunentzako, edo landetxe batean gaua ematea.

Bestalde, aipatu beharra dago azken sei urteetako finalisten argazkiak ikusgai ipiniko direla azaroan, Sondikako liburutegian.

Iazko irabazlea Aritz Atela Aio izan zen. Gazteak Kroazian ateratako argazkia aurkertu zuen lehiaketara. Argazkia ondoan daukazu.



Larrabetzu 1937-2016

Ekainean, 79 urte bete dira tropa faxistek Burdinazko Gerrikoa apurtu zutela, eta Larrabetzun efemeridea ekarriko dute gogora eta omenaldia egingo diete gerran hildako milizianoei. Bestalde, aipatu beharra dago Karrantzeren elkarteak, Udalak eta Aranzadi elkarteak lankidetzarako akordio bat sinatu dutela eta horri esker, urtarrelean hiru borrokalariren gorpuzkiak atera zirela lurpetik. Aranzadikoek ezin izan dute jakin nortzuk ziren hiru borrokalarietako bi, baina jakinarazi

dute urtarrelean 16an, Urkullu mendian, lurpetik ateratako gorpuzkiak Ramón Portilla Acedorenak direla. Portilla CNT-ko Celta batailoiko milizianoa zen.

Ekainaren 25ean, zapatuan, Herriko Plazatik atera eta Bolunburura abiatuko dira. Asturiar milizianoei omenaldia egin eta ostean, herri bazkaria eudiko dute. Salvador Amor eta Gabriel Ortegak kantaldia eskainiko dute arratsaldean.

6.000 kilo elikagai batu dira Txorierrin, errefuxiatu siriarreri laguntzeko

Ekimena Danontzat Loiuako elkarteak sustatu du apirilean eta maiatzean zehar. Azaldu digutenez, Zaporeak egitasmoaren berri eduki zuten, eta erabaki zuten haiek ere beren ekarpena egitea errefuxiatu siriarreri laguntzeko. Zaporeak egi-

tasmoaren boluntarioek hilabeteak darabatzate Chios Greziako irlan, zailtasunak zailtasun, han dauden errefuxiatu siriarrerekin otorduak prestatzen.

Janari bilketa Txorierrin, Erandion eta Santurtzikotik lau ikastetxetan egin dute

eta orotara 6.000 kilo elikagai batu dira. Elikagaiak Donostiara bidali dituzte, eta handik Chios irlara. Danontzat elkarteak kideak oso pozik daude herritarren erantzunarekin, eta Zaporeak egitasmoaren lagunek ere oso eskertuta azaldu dira. Loiuako elkartetik esandakoaren arabera, hurrengo ikasturterako ere badute janaria batzeko kanpaina antolatzeke asmoa.

BASALBEITIKO TXAKOLINA
Bizkaiko Txakolina
Denominación de Origen

Bizkaiko Txakolina

Goititortza auzoa, 37
(LEZAMA)
94 455 61 46

HORTZ - KLINIKA

Jasone Azurmendi Garai

Pakearen Plaza, 1 - 1º A
DERIO

Teléfono: 944 543 705

Familia osorako
kalitatezko arreta,
zure esku

clínica dental ZAINDUZ hartz klinika

ZERBITZU BERRIAK
Logopedia
Podología
Krimasajak

Txaneri elizbidea, 9 - Lonsa | Arteaga eskola | 48180 DERIO

94 454 01 01 | 657 79 54 45

info@dentazainduz.com | www.dentazainduz.com

Neskek Lezamako Txakolin Egunean ospatu zuten titulua



a: Gaizka Peñafiel

Athleticen emakumezkoen taldeak bosgarren aldiz irabazi du Superliga. Liga bukatzeko partida bat falta zela, neskek Lezamako Txakolinaren Egunean bertan, ekainaren 5ean, jakin zuten garaipena lortu zutela, Atletico Madrilek Bartzelonari irabazi ostean. Eta Lezamako plazara hurbildu ziren, titulua ospatzera. Izan ere, Joseba Agirreren neskek lau puntuko alde ateratzen zieten kataluniarrei eta Atletico Madrilen garaipenari esker, lortu egin zuten txapela.

Athleticen emakumezkoen taldean bost jokalaritxorierritar daude: Amaia Olabarrieta, Joana Flaviano, Leia Zarate eta Sara Barbosa lezamarrak, eta Iraia Iturregi loiuztarra. Taldearen poztasuna Amaiak jakinarazi zigun. "Oso denboraldi luzea eta gogorra izan da, eta poz-pozik



gabiltza. Azken partida Teneriferen kontra genuen, oso partida zaila zen gainera, eta presiorik gabe jokatu ahal izan genuen".

Jokalaritxak lezamarrak herriko txakolinaren enbaxadore izendatu dituzte aurten.

Neskek brindisa egin eta hasiera eman zioten Txakolinaren Egunari. Haiekin batera, herriko txakolingileak eta Jon Ander Aurrekoetxea Lezamako alkatea egon ziren eszenatokian. Gainera, saria eman zioten Ciriaco Dañobeitia larrabetzuarrari, txakolina ekoizten urteak daramatzalako. Bertso saioa egin zen eta arratsaldea Lotxo taldeak girotu zuen. Aurreko urteetan moduan, baserriko produktuak ipini ziren ikusgai eta erosgai, eta zenbait ekitaldi antolatu ziren, hala nola dantzen agerraldia eta tailerrak. Hanburgesa txikiak dastatzeko aukera ere egon zen.

Lezamako ospakizunaz aparte, Klubak ekitaldi ofiziala antolatu zuen ekainaren 7an. Horren haritik, eztabaida sutsua zabaldu zen gizartean, nesken garaipena ospatzeko gabarra ateratzea eskatu zutelako zale askok. Azkenean, neskek ez zuten Bilboko itsasadarra gabarraz zeharkatu. "Normalizat hartzen dugu gizarte mailan zabaldu den eztabaida, baina guri berdin digu ospakizun-ekitaldia gabarraz, autobusez edo oinez egiteak. Kontua da, batetik, Superliga ospatu eta zaleekin bat egitea; eta bestetik, normaltasunera eramaten gaituzten pausoak ematea", esan digu Amaiak. Bestalde, aipatu beharra dago Amaiak datorren denboraldian futbola jokatzeari uzteko erabakia hartu duela.

Koparik ez

Ligan emaitza paregabea izan da, baina Kopan berriro huts egin dute zuri-gorriek. Neskek ez dute inoiz Kopa irabaztea lortu, beren txapelketa madarikatua da. Ekainaren 18an, Madrilen, Athleticek 0-2 galdu zuen Levanteren kontra. Partida jokatu baino lehen, Joseba Agirre entrenatzaileak txapelketara nekatuta heltzen zirela adierazi zuen, eta bere oharra egia bihurtu zen. Bilbotarrek ez zuten txarto jokatu, baina aukera batzuk alferrik galdu zituzten, penalti bat barne, eta, azkenean, Kopatik kanpo gelditu ziren.



**Garmendia
ardoak**

Pinea pol., P-3B
ZAMUDIO
Tel./Faxa: 94 452 00 49

Tel./faxa: 94 452 06 64
Torrelamagotxi ind. P-7
48170 Zamudio (Bizkaia)

**Restaurante
JANA JATETXEA**



Eguneko menuak
Menu bereziak
Jaunartzeak, baltxoak eta ezkontzak



**Hartz-klinika
IDOIA ZUBIETA**

Osasun-zentroa & Hartz-estetika
HORTZ-INPLANTEAK - ESTETIKA-ORTODONTZIA

Aritzeta doktorea, 11. - 1. ezk.
48011 BILBAO
T: 944 416 322

Uribe Plaza, 1
48170 ZAMUDIO
T: 944 521 370

Goitioltzako jaiak uztailaren 8an eta 9an ospatuko dute Lezaman, eta jai-batzordeak egitarau zabala antolatu du hauen laguntzarekin: Udala, Kurutze dantza taldea, Zorri bike eta Zorritzketan euskara elkarteak. Aipatu diguten moduan, ekintza erakargarrienak zapatuan izango dira. "Urtero moduan, paella txapelketa egongo da eta aurten, nobedade moduan, dantza plaza ekitaldia ekarriko dugu Iparraldetik, Patxi eta konpainia taldearen eskutik. Arratsaldea dantzaz girotzeko asmoa daukagu".

Uztailak 8, barikua

- 18:00: Txupinazoa eta jaien hasiera.
- 18:30: Umeentzako puzgarriak.
- 21:00: Ikuskizuna: Xaibor.

Uztailak 9, zapatua

- 10:00: Mahaia eta aulkiak banatzea.
- 12:00: Kurutze dantza taldearen emanaldia.
- 13:00: Paella Txapelketan izena ematea.
- 14:30: Paellak aurkeztea.
- 15:00: Enduro Txapelketa.
- 17:30: Enduro Txapelketaren sariak banatzea. Sokatira.
- 19:30: Dantzaldia: Patxi eta konpainia.
- 22:30: Erromeria: Trikiño.

Dantzak zapatuko arratsaldea girotuko du Goitioltzan



a: Facebook / Patxi eta konpainia. Emanaldia, Iparraldean.

Akordia lortu eta lanera itzuli dira Eatoneko langileak

Enpresa batzordeak eta zuzendari-tzak akordia lortu dute azkenean, Derioko alkatearen eta Eusko Jaurlaritzaren bitartekotzari esker. Enpresa batzordetik jakinarazi digutenez, 39 kaleratzeak mantenduko dira, baina enpresak proposatutako pertsonak kalera joan beharrean, langileek eurek erabakiko dute enpresan jarraitu nahi duten, edo alde egin nahia- go duten. Indemnizazioei dagokienez, enpresak 40 hilabete eta hilabeteko 45 egun ordainduko ditu. Horrezaz gainera, 60.000 euro baino gehiagoko indemnizazioa dutenek 8.000 euro gehiago jasoko

dute; eta 60.000 euro baino gutxiagoko indemnizazioa dutenek, 11.000 euro gehiago. Era berean, eta aurre-erretiroei dagokienez, enpresak soldata garbiaren % 80 ordainduko du langileek 63 urte bete arte, eta urtean % 0,5eko eguneratzea edukiko dute.

Bestalde, multinazional estatubatuar- rrek bermatu du Derioko enpresak gutxienez 2020ko abendura arte egongo dela martxan, eta tarte horretan ez dutela inongo enplegu-erregulazioko espedien- terik egingo. Nolanahi ere, eta betiere en- presa batzordea ados badago, bederatzi

langile kaleratu ahal izango ditu 2018tik 2020ra bitartean. Langile horiek orain sinatutako indemnizazioa jasoko dute.

Berrogeita hamabost egunen ostean, greba bertan behera utzi eta Eatoneko langileak ekainaren 21ean itzuli ziren lanera. "Akordio ona izan da, baina ezin dugu esan pozik gaudenik. Azken batean, enpresaren eskakizunetarikoz batzuk onartu behar izan ditugu, eta 39 lankide joango dira kalera". Ekaineko alea itxi or- duko, enpresarekin harremanetan jartzen saiatu gara euren balorazioa ezagutzeko, baina ez dugu erantzunik jaso.

LOREGARBI

GARBIKETA ZERBITZUAK

Garbi-ikusiak, orokorrean
Auzokoen konzentratuak
Mantentze garbi-ikusiak
Bulegoak eta lokalak
Oliniko enpresen garbiketa
Ikusketak
Zabon bilketa

Besaide Plaza, 1 - B° Aldekoa
48160 DERIO (Bizkaia)
loreagarbi@euskalnet.net

Tel: 94 406 49 92
656 712 443
Fax: 94 406 49 93

LEIRE BEGOÑA

ULE-APAINDEGIA

MUNICIALE ETOBIDEA, 20
48160 DERIO
94 454 26 32

Jarrai itzazgu Facebook-en

Arantza Amondarain Lasa

Ginekologoa

Txerriaren sarrateak, 3-4
413. Bulegoa
48160 Derio

Telefonoa eta faxa
94 454 44 36
a.amondarain@euskalnet.net



Lezamako egitasmoa.



Larrabetzuko ikasleak, saria jasotzen.

Lezama eta Larrabetzuko eskolak, Aktibatu+ programan sarituak

Bizkaiko Foru Aldundiak Aktibatu+ programaren laugarren edizioa antolatu du aurten. Lezamako eskolak energiaren moduluko lehenengo saria jaso du, eta Larrabetzuko eskolak, bigarrena. Eskola bietako neska-mutilek aztertu zuten ikastetxean bertan zelan energia aurreztu: kontagailuak begiratu zituzten, teknikariek hitz egin zuten eta kanpaina bat zabaldu zuten ikaskide eta eskolako langileen artean.

“Beti antolatzen dugu ingurumenari buruzko ekimenen bat eta aurten Aktibatu+ programan parte hartzea erabaki dugu. Oso onuragarria iruditzen zaigu. Izan ere, gazteek barneratzen dute ingurumena zaintzea bakoitzaren esku dagoela, hau da, guztiok neurri txiki batzuk hartzen baditugu, lagundu ahal dugula ingurumena zaintzen”, esan digu Luisma del Valle Lezamako eskolako ikasketa-buruak. Leza-

man. 5. eta 6. mailako ikasleek hartu zuten parte proiektuan eta, irabazleak izateagatik, Metro Bilbaoren instalazioak bisitatzea jaso dute saritzat. Gainera, bidaia egingo dute metro bateko kabinan.

Bestalde, Larrabetzuko eskolak bigarren saria jaso du, antzeko proiektu bat egiteagatik. “Maite López irakasleak izena eman zuen programan. Oso pozik gaude, gurea eskola txikia delako eta guztiok inplikatzeko garelako. Neska-mutilek gogor egin zuten lan hiru hilabeteetan eta, gure ustez, energia aurrezte eta, azken batean, ingurunea zaintzea oso garrantzitsuak direla ikasi dute”, esan digu Paloma Undagoitia Larrabetzuko eskolako zuzendariak. Larrabetzuko 3. mailako ikasleek Armañongo parketxera bisita bat jaso dute saritzat.

Aktibatu+ programa Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasleei dago zuzendu-

ta, eta iraunkortasunaren aldeko herritarren parte-hartzea sustatzea du helburu. Txorierriko eskolekin batera, Busturialdea-Urdaibai, Mungialdea, Erandio, Getxo eta Leioako 18 ikastetxek hartu dute parte programan. Ikasleak bi modulutan aritu dira: alde batetik, energia-kontsumoa murriztea helburu duen moduluan; eta, bestetik, hondakinen ekoizpena murriztea, horien kudeaketa hobetzea eta erosketarizpide iraunkorrak ezartzea helburu duen moduluan. Edizio honetan, oro har, ikasleek proposatutako neurriei esker, erabilera eraginkorragoa erregistratu da ikastetxe guztietan; hala, batzuetan kontsumoa % 5 murriztea lortu da, eta batzuetan % 20an murrizteraino ere heldu da. Era berean, hondakin gutxiago sortzea, gaikako bilketa areagotzea eta erosketak modu iraunkorragoan kudeatzeko irizpide berriak finkatzea ere lortu dute.



“Garrantzitsuena piztu den ilusioa da”

a: Idoia Andrés

Gure Esku Dago herri dinamikaren barruan, Ebatzi Larrabetzuko taldeak erabakitze eskubidearen aldeko adierazpena aurkeztu zuen jendaurrean ekainaren 4an. 2017ko udaberrian galdeketa egitea helburu daukatela, adierazpena dinamikaren hiru printzipioetan oinarritu dute: herri bat gara, erabakitze eskubidea daukagu eta herritarren garaia da.

Aurkezpenean plazan egin zuten. Larrabetzuarrak herriko hiru abiapuntutatik hurbildu ziren hara, oihalezko hautestontzi zatiak zeramatzatela. Gero, plazan, guztion artean eraiki zuten hautestontzia eta hasiera eman zioten ekitaldi nagusiarri. Adierazpena irakurtzeaz gainera, besteak beste, haren aldeko sinadurak batu ziren eta galdeketa egingo den eguna eman zen ezagutzera: 2017ko martxoaren 26an.

“Oso pozik gaude herrian piztu dugun ilusioagatik”, esan digute Ebatzi taldekideek. “Herritar ezberdinak batu ginen plazan, eta asko aurretik ere egon dira hainbat egitasmotan elkarrekin lanean: ikurrinaren aldeko kanpaina, memoria historikoari buruzko lana... Baina uste dugu hau ere izan dela azken 30 urteotan egon den ekitaldirik koloretsuena. Herri

Ekainaren 4an, erabakitze eskubidearen aldeko adierazpena aurkeztu zen Larrabetzun. Galdeketa 2017ko martxoaren 26an egingo dute.



honek luzaroan duen helburu bati begira dagoela, bere etorkizuna erabakitzeari hain zuzen ere. Eta ideia hori gero eta jende gehiagorengana ailegatzen ari da”. Plazara hurbildu zirenek zein egun horretan kanpoan ibili zirenek beren argazkia bidali zuten antolatzaileei, haiekin bat egiten zutela adierazteko. “Garrantzitsuena piztu den ilusioa da. Gaiak zer esana emango du hemendik martxora bitartean, eta horixe da nahi duguna; erabakitze eskubidearen inguruan berba egitea. Gure artean egon daitezkeen desber-

dintasunak errespetatuz, baina eskubide hori dugula onartuz, inori ukatu gabe”.

Urrats handia

Antolatzaileen esanetan, urrats handi bat eman zen zapatuan Larrabetzun. “Jende askok adierazi du bere atxikimendua, eta denon parte-hartzeari eta lanari esker izan da posible egun hau, baina oraindik urrats handiago baten aurrean gaude. Lan handia egin beharko dugu eta herritarrek lan horretan inplikatu”. Horrela, bada, galdeketa egiteko protokoloa ipiniko dute martxan eta denon artean zehaztuko dute martxoaren 26an egingo den galdera.

Ekainaren 5ean galdeketa egin zen Euskal Herriko 32 herritan. Galdeketa, herritarren % 30ek hartu zuten parte eta % 95ek independentziaren aldeko botoa eman zuten. “Emaita onak dira. Katalunian, 2009an egin zituzten lehen galdeketa herritarren % 27k hartu zuten parte. Eta begiratu nora iritsi diren. Guk ere pitike-pitike egingo dugu aurrera, Larrabetzun esaten den moduan”.





Virginia Largo López | Uretako tximeleta

Bost urte zituela, igeriketan hasi zen ikastaro batean, eta denboraren poderioz konturatu zen ura bere bizimodua zela, nahiz eta bes-telako kiroletan ere aritu izan. Gazte sondikoztarrak 15 daramatza igeriketa ikastaroak ematen eta, bere esanetan, "oso aberasgarria da igeri egiten ikasten dabiltzan haurrak ikustea, belaunaldiz belaunaldi". Virginiak hainbat lasterketetan hartu du parte; udan, esate baterako, itsasoan zehar egindako ibilbideetan. Neguan, igerilekuan entrenatzen da. Hala ere, ez dio ezetz esaten Txorierrin antolatzen diren atletismo, oztopo, martxa edota bestelako lasterketei. Hala, apirilaren 10ean, Loiuko Eternal Running lasterketan hartu zuen parte.

Testua eta argazkia: Jon Goikouria Larrabeiti
www.jongoikouria.com

Kemena.

Zure negozioaren bultzada

Publizitatea
eta eduki kreatiboak



✉ info@atomikastudio.com

www.atomikastudio.com



“Nik egindakoa ez egiteko esaten diet gazteei”

t/a: Gaizka Eguzkitza

Zelan Zamudion?

Oso gustura. Partida polita izan zen eta frontoia txikia izan arren, bete egin zen. Pilotariok eta zaletuek ondo pasatu genuen eta hori da garrantzitsuenak.

Gaur egun hauxe da zure bizitza, ezta? Herriz herri, partidak jokatzen...

Bai. Profesionala nintzela, udal txiki batzuek ezin ninduten kontratatu, baina gaur egun, bai. Partida pilo bat jokatzen ditut urtean zehar. Iaz, 92 izan ziren. Eta uda honetan ere jokatuko ditut hainbat partida. Nire bizitza osoa eman dut pilotaren inguruan, nire mundua da. Zaletu edo beterano mailako partida haiei esker, dirua ateratzeaz gain, pilotan jokatzen jarraitzeko aukera daukat. Eta gainera etxetik ihes egin ahal dut (kar, kar).

Nolako giroa dago partida haientan? Lehia handia dago?

Nire garaiko pilotarien kontra jokatzen dut: Eugi, Lasa, Eulate, Olaizabal, Pascual... Gehienak lagunak dira eta oso giro polita dago. Askotan, partidaren ostean afaltzera goaz elkarrekin. Hala ere, partida onak egitea dugu helburu, eta frontoiaren barruan ez dago lagunik, galtzea inori ez zaiolako gustatzen.

MIKEL GOÑI | pilotaria

Bere burua zaindu balu, noraino helduko zatekeen? Mikel Goñik (Oronoz-Mugaire, 1977) mila aldiz entzun du galdera hori. 1996tik 2009ra bitartean profesionala izan zen eta txapela bakar bat irabazi arren, izugarritzko ikusmina pizten zuen frontoian. Eta oraindik ere jarraitzen du pizten. Maiatzean, Arbolantxa Pilota elkarteak Mikel ekarri zuen Zamudioko jaietara, eta frontoia bete egin zen.

Hitz egin dezagun zure karrerari buruz. Nola hasi zinen pilotan jokatzen?

Herrian, Oronozen, gehienok jokatzen genuen pilotan, tradizio handia dagoelako. Txikitan, eskolatik atera bezain pronto, frontoira joaten ginen. Zazpi-zortzi urte genituenean, astean bitan joaten ginen Elizondora, entrenatzera. Horrela jarraitu genuen 18 urte nituela profesional egin nintzen arte.

Ondo gogoratzen duzu debutaren eguna, ezta?

Bai, bai. 1996ko otsailaren 17an, Tolosako Beotibar pilotalekuan. Egun handia izan zen niretzat. Garai hartan, Asegarce enpresa baino ez zegoen eta ez zen

batere erraza profesionala izatea, eta are gutxiago hain gaztea izanda. Handik aurrera, gauza asko gertatu dira (kar, kar).

Gazteegia sartu zinen profesionaltasunean?

Ez dakit. Nik zaletu mailan ez nuen ia partidarik jokatu. Beraz, gazte mailatik profesional mailara ia zuzenean joan nintzen. Egun batetik bestera ospea eta dirua erori ziren nire gainean. Buru arina nuen eta ez zen erraza izan niretzat horri guztiari aurre egitea. Akats asko egin nituen, baina kaltea nire buruari baino ez nion egin, ez beste inori. Askok esaten dute gauzak beste era batean egin izan banitu, emaitzak ezberdinak izango ziratekeen. Berdin dio, gauzak egin nituen

*"Nire leloa hau da:
akatsetatik ikasten
saiatu, eta egin
dituzun gauza
onengatik harro sentitu"*

moduan egin nituen eta ez dago atzera egiteko aukerarik. Beraz, akatsetatik ikasten saiatu, eta egin dituzun gauza onengatik harro sentitu.

Eta atzera begiratzen baduzu, zer sentitzen zara?

Nahaste-borrastea. Harrotzen nau zaletuek oraindik ni maitatzeak: jokatzeko dudak, bakoitzean, frontoia betetzen da eta nirekin berotasunez hitz egiten dute.

2009an utzi zenion profesionala izateari. Zergatik?

Inazio Errandonea sartu zen nire enpresan, Aspen, eta arazoak izan nituen berarekin. Beraz, alde egiteko erabakia hartu nuen. Gaur egun, nire kabuz antolatzen ditut partidak, handik bizi naiz eta pozik nago. Nahi dudana egiten dut eta pilotaz, nire pasioaz, gozatzen naiz. Gainera, jende gaztearekin nabil harremanetan, eta aholkuak ematen dizkiet. Nik egindakoa ez egiteko esaten diet (kar, kar).

Zer eman dizu pilotak?

Dena. Txikitatik jokatzeko dut, ospea eta dirua ekarri dizkit... Oso partida onak egin ditut, baita oso txarrak ere; jende asko ezagutu ditut; Titin, Eugi edo Barriola bezalako pilotari handiekin lehian sartzeko gauza izan naiz... Arantza txiki bat daukat, txapela bakar bat irabazi dudalako, Nafarroako lau t'erdikoa, eta horrek pena ematen dit. Baina tira, gaur egungo zaletuek ez dira nirekin ahaztu.

Pilotaz aparte, azken bolada honetan telebistak ere ekarri dizu ospea. Zelan *El conquistador del fin del mundo* saioan?

Ondo. Batzuetan hartu dut parte, eta agian aurten ere sartuko naiz. Oso gogorra da. Kapitainok 21 egun ematen ditugu saioan, eta azken aldian 12 kilo galdu nituen. Saioa biziraupen hutsa da. Lagun batzuek eskatu didate saioan sartzeko, baina nik ez nuke lagunik saiora eramango, oso gaizki pasatzen delako: gosea, zikinkeria, euria, ostia txarra... (kar, kar).

"Jokatzeko dudak, bakoitzean, frontoia betetzen da eta zaletuek berotasunez hitz egiten didate"

Gaur egun Gatican bizi zara. Zergatik han?

Nire neskak bertan egiten du lan eta duela urtebete eta erdi hara joan ginen bizi izatera. Gatican oso gustura nabil, koadrila daukat, haiekin jokatzeko dut pailan, jende zintzoa da... Gatika Oronoz bezalakoa da, herri txikia, eta guztiok eza gutzen dugu elkar.

Azken bolada honetan, arazoak izan dituzu justiziarekin. Zelan dago auzia?

Abokatuak gomendatu dit horren inguruan ez hitz egiteko, baina lasai nago, kartzelara joango ez naizelako.

"Irribarria bezalakoak, 10 urterik behin"

Gaur egungo pilotari buruz ere hitz egin dugu Mikel Goñirekin. Bera Irujoren zalea da. "Alde batetik, nire moduko pilotaria delako; eta bestetik, zerbait ezberdina eskaintzen duelako. Aimar ere pilotari ikaragarria da, oso metodikoa. Eta bera mende hartzeko benetan ondo jokatu behar da. Hala ere, nik Irujo nahiago dut".

Badirudi, Irribarria eta Urrutikotxe pilotari gazteen eskutik, aro berri batean murgiltzen hasi garela. "Irribarria bezalako pilotariak hamar urterik behin sortzen dira, oso ona da. Eta batez ere, buru orekatua du. Dena dela, kirolean kontuz ibili behar dugu gazteekin, berehala mito bihurtzen ditugulako. Bakoitzak bere bidea egin behar du, patxadaz. Pilotari gazteak sortzea beti da onuragarria, haiek zale gazteak erakartzen dituztelako. Izan ere, azken bolada honetan zaletasunak apur bat egin du beheko frontoietan. Ea haiei esker berreskuratzen den".



**Baserritarren Alkartea
Lezama S. Coop.**

Aretxalde, 21 BIS
48196 LEZAMA
☎ 94 455 60 16
e-mail: lezama@fcae.org
Bazkideak: 144

*Pentsu
naturalak*

a: O. A.

**Kolonbian zagoz, praktikak egiten, Global Training beken bidez. Zelan-
goak dira beka horiek?**

Bekek atzerrian lan egiteko aukerea emoten deusue. Sei hilabeteko lan eskaintzea da, eta beketarako diru-laguntzea HETEL Gizarte Ekimeneko Lanbide Heziketako Ikastetxeen Alkarteak emoten dau. Lehenengo pausua, izena emotea da; gero, alkarrizketa batzuk egin behar dozuz, nire kasuan, Politeknika Txorierrin; eta ondoren, enpreseagaz akabuko alkarrizketa bat.

Eta zu, zergaitik animau zinan beka eskatzera?

Atzerrian lan egin ahal izatea kristoren esperientzia da: lanean trebatu, kultura ezbardin baten bizi izatea...

Kolonbia zuk aukeratutako herria da?

Ez, baina oso pozik nago berton. Kolonbiaren inguruan daukagun ideia ez da oso ona: hilketak, narkotrafikoa, Pablo Escobar narkoaren mundua... Baina kristoren herrialdea da. Hori bai, desbardintasun lar dago jentearen artean, ekonomikoki behintzat.

Eta zergaitik Tecnaliaren egoitzan? Zerikusirik dauka zure ikasketakaz?

Bekea lortzeko bide bakarra Tecnalia zan. Horrek badauka zerikusia nire ikasketakaz, esate baterako, merkaduen kudeaketari jagokonez. Nik Salmenten eta Merkataritza Esparruen Kudeaketa goi mailako zikloa ikasi dot.

Zein da zehatz-mehatz zure lana?

Danetarik egiten dot: biltzarretara joan, enpresa barriak bilatu, administrazio-lana... Baina hemengo erritmoan, noski.

Alde handia dago Kolonbia eta Euskal Herriaren artean, lan egiteko erari jagokonez?

Desbardintasun handiak dagoz. Adibidez, puntualtasuna: kolonbiarrak ez

"Kolonbia kristoren he

ORKATZ ALBERDI | bekaduna, Kolonbian

Mundu global baten bizi gara, eta askotan, batez be gazteak atzerriara joan behar izaten dira etorkizun bila. Orkatz Alberdi (Lezama, 27 urte), adibidez, Kolonbian dago praktikak egiten, Global Training bekei esker. Eta Hegoamerikatik bertatik emon deusku bere esperientziaren barri.



"Nik aukeratutako herria ez den arren, oso pozik nago berton"

"Espainian antzera, jentea ezbardina da Kolonbian, bizi diran lekuaren arabera"

inprimategia + kartelgintza + erakustegi mugikorak + scanner & txosten kudeaketa + erreprografia

ZamudionElkarte Teknologikoa, 105.
T 94 431 71 36
E zam@cianoplan.es

cianoplan
GLOBAL PRINTERS

BARAKALDO · BILBAO · GETXO · ZAMUDIO

902 103 763
www.cianoplan.es

Herrialdea da"



dira inoz lotutako orduan heltzen, mugikorra edozein momentutan erabilten dabe eta ez dira argiak berba egitean. Bai ala ez esateko, bueltaka dabilz eta berba asko egiten dabe, ezer ez esateko.

Zertan lagunduko deutsu zure lanean Kolonbian praktikak egin izanak? Zelako ekarpena egingo deutsu?

Egia esan, idearik be ez. Nire ustez, Tecnalian lan egiteak Kolonbian lan egiteak baino gehiago lagunduko deust.

Lana ez eze, bertako kulturea, ohiturak eta jentea ezagutzeko aukerea be badaukazu. Zer deritxezu Kolonbiari? Zelangoak dira kolonbiarrak?

Berezia da. Kolonia oso herrialde aberatsa da kultura arloan, eta natura gustuko badozu, ezin hobea. Egia da garapen bidean dagoan herrialde bat dala eta gauza asko hobetu behar dituela, baina hemen bizitzea oso interesgarria iruditut jat. Espainian antzera, jentea ez-bardina da, bizi diran lekuaren arabera.

Zelan emoten dozuz egunak bertan?

Lanetik urten eta etxe ondoan daukadan gimnasioan emoten dot denporea, baita auzoan bertan dagoan taberna baten be. Gainera, futbito partidak jokatzen dodaz, erosketak egiten dodaz... Normalean ez naz laneko jentegaz ibilten. Kolonbiara ailegau eta lehenengo bi asteetan ostatu baten egon nintzan, eta hango langileakaz ibilten naz. Nire adinekoak dira eta oso jatorrak dira.

Turismoa egiteko aukerea be euki-ko dozu, ezta?

"Medellin hiria ez jatan gustau: hiri handia da, kutsaduraz betea eta izugarritzko kaosa da egunero"

Bai, jakina. Ahal dodan bakoitzean. Gainera, Kolonbiak gauza pilo bat dauka. Arazo bakarra da errepideak oso txarrak dirala eta 400 kilometroko bidaia bat egiteko, bederatzi ordu emon behar dozuzalabidean. Gehienetan, hegazkinez bidaia-tzen dot, hemengo konpainiak merkeak diralako.

Zer da gehien gustetan jatzuna? Eta gitxien?

Lehenengoari jagokonez, ezingo neuke gauza bakar bat aitatu: jentea, janaria... Eta gitxien gustetan jatana, Medellin urian bizi izatea. Medellin handia da, kutsaduraz betea eta itzelezko kaosa dago egunero.

Zelan baloretan dozu esperientzia?
Kristorena, oso aberasgarria.

Beste gazte batzuk animauko zeun-kez esperientzia hori izatera? Zergaitik?

Bai, horixe! Etxetik kanpo, lagunengandik urrun eta kultura arloan ezbardina dan herrialde baten egotea ondo etorten da. Horrelako esperientziek gauzei beste ikuspuntu batetik heltzeko aukerea emoten deustue.

Hemen prestakuntzak lantzen dakar berarekin

POLITEKNIKA IKASTEGIA TXORIERRI S.COOP.
Centro de Educación Secundaria y Formación Profesional
Lanbide Heziketa eta Bigarren Instrukziozako Ikastetxea

Urtzagui Ibaia Kalea, 1 | Tel.: 94 403 40 60 | info@txorierri.net
48100 - DEFO | Fax: 94 403 40 81 | www.txorierri.net

Eusko Jaurlaritzak diruz-lagundutako ikastetxea

ZIENTZIAK BATXILERGOA LANBIDE HEZIKETAKO ZIKLOAK

FABRIKAZIO MEKANIKOA

- Mekanizazio teknikaria
Erdi mailako zikloa (2.000 ordu)
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinuko goi mailako teknikaria
Goi mailako zikloa (2.000 ordu)
- Produzioaren Programazioko goi mailako teknikaria
Goi mailako zikloa (2.000 ordu)

SEGURTASUNA ETA INGURUMENA

- Ingurumen Hezikuntza eta Kontrolako goi mailako teknikaria
Goi mailako zikloa (2.000 ordu)

ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA

- Automatizazio eta Robotika Industrialeko goi mailako teknikaria
Goi mailako zikloa (2.000 ordu)
- Telekomunikazio eta Informatika Sistemetako goi mailako teknikaria
Goi mailako zikloa (2.000 ordu)

MERKATARITZA ETA MARKETINA

- Saimenten eta Merkataritza Espazioen Kudeaketako goi mailako teknikaria
Goi mailako zikloa (2.000 ordu)

Mihiluze txapelketa:

Urterik urtera gero eta partaide gehiago



Partaide kopurua igotzen ari da etengabe. Ikus ditzagun urtez urteko kopuruak:

URTEA	UME KOPURUA
2012	114 ume
2013	130 ume
2014	188 ume
2015	194 ume
2016	204 ume

Txorierriko Mankomunitateak bosgarren urtez Mihiluze txapelketa antolatu du 5. eta 6. mailan dabilen neska-mutilentzat. Programa horrek aisialdian euskaraz disfrutatzea, erabileran eragitea eta hizkuntza lantzea dauka helburu nagusizat. Kontuan izan behar dugu gainera, aurtun Txorierriko herri ikastetxeetan 5. eta 6. mailan matrikulatuta dauden umeak 317 direla, eta hortik 204 umek hartu dutela parte Mihiluze txapelketan (hau da, % 64,35ek).

Martxotik ekainera, Txorierriko ludoteketan Mihiluzen jolasten aritu dira bikote-

ka, aste barri eta asteburuetan, eta kanporaketak eta finalaurrekoak egin ostean, lehia gogorraren ondoren, finalera, Larraitz, Zamudio eta Sondikako bikoteak heldu dira.

Finala, ekainaren 3an izan da, Derioko Kultur Birikan eta aurtengo edizioan Larraitzeko bikotea geratu da lehenengo (Ismene Pico eta Andrea Martinez de Alegria), Sondikakoa bigarren (Oihan Gerediaga eta Danel Arteaga), eta Zamudiokoa hirugarren (Izaro Zuazo eta Ane Dañobeitia). Hiru bikoteek familian disfrutatzeko bidaia jaso dituzte: lehenengoak

Madrilgo Warnerrako bidaia, bigarrenak Nafarroako Senda Vivara eta hirugarrenak Donostiara, hain zuzen ere. Honetaz gain, finalera heldu ez, baina herri mailan lehenengo geratu diren bikoteei ere, hau da Lezamakoei (Maialen Monasterio eta Garazi Gonzalez) eta Deriokoei (Maidier Eleceta eta Aroa Sesto), diplomak banatu zaizkie.

Zorionak irabazleei, txapelketan parte hartu duten ume guztiei eta baita ikastetxe eta ludoteketako begiraleei ere, programa honek horrelako arrakasta izateko jarritako interes eta laguntzarengatik!

Txorierriko Mankomunitateko Esku-hartze Komunitarioko Zerbitzuak Tabako Maketa Lehiaketa antolatu du hirugarren aldiz, Tabakoaren Aurkako Munduko Egunaren haritik. Eskola guztietako 6. mailako ikasleek, tabako arloan, jasaten duten talde presioari aurre egiteko tailer bat jaso zuten apirilean. Horren helburua, tabakoaren kontsumoa saihesteko, ikasleei ezagutza, gaitasunak eta giza baliabideak ematea izan da, pertsona bakoitzaren iritzia eusten jakiteko teknikak praktikan jarritz. Ikasleek maketak ere egin dituzte eta horiek maiatzaren 24etik ekainaren 6ra arte ipini dira ikusgai osasun zentroetan. Irabazleak Sondikako Gorondaganeko 6.B-ko ikasleak izan dira. Miguel Angel Gazteluk, Txorierriko mankomunitateburuordeak Forestal Park Bilbao-Akarlandara joateko txeke eta diploma bana entregatu zien.

Txorierriko III. Tabako Maketa Lehiaketa





Negozio bati ekiteko laguntzak

Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateak, Egaz Txorierriren bitartez eta Lanbideren eta Europako Gizarte Funtzaren laguntzarekin, ekintzaileei zuzendutako 39 diru-laguntza eskaintzen ditu, alde batetik, negozio-ideiak abiaraz ditzaten, eta bestetik, aholkularitza zerbitzua jaso dezaten. Aholkularitza zerbitzua hiru hilabetez eskainiko da eta pertsonalizatuta izango da.

Pertsonako 1.000 euroko 24 diru-laguntza emango dira, negozio ideiak garatzeko; eta pertsonako 1.500 euroko 15 diru-laguntza, enpresak martxan jartzeko. Laguntza jasoko duena 30 urtetik beherakoa bada, edo emakumezkoa bada, diru-laguntzaren zenbatekoa % 15 handituko da (ehunek biak metagarriak dira). Horrela, 1.300 eurora arteko diru-laguntza jaso daiteke, ideia bat aztertzeko; eta 1.950 eurora artekoa, negozioa sortzeko. Era berean, ahalegina egingo da hautaketa-prozesuan emakume ekintzaileak egon daitezen.

2015eko deialdian, guztira 60.800 euroko laguntzak eman ziren. Hogeita sei pertsona ekintzailek (19 emakume eta zazpi gizonek) diru-laguntza jaso zuten, 18 enpresa-ideiaren bideragarritasuna aztertzeko; 30.350 euro orotara. Bestalde, 24 pertsonak (heren bi, emakumeak) diru-laguntza izan zuten, beste 17 proiektu martxan jartzeko; 30.450 euro orotara. Proiektu horietatik 10 atera dira aurrera eta 14 enplegu sortu dituzte (sei emakume eta zortzi gizon).

Egin ezazu eskaera uztailaren 1a baino lehen. Oinarriak udal webguneetan eta Egaz Txorierriren webgunean (www.somostxorierri.com) deskarga ditzakezu.

Informazio gehiago:
94 453 63 70
egaz@txorierri.eu



Langabezian zaude? Negozio-ideiaren bat duzu?

**Zure negozioa abian jartzen
laguntzen dizugu!**

1.000 € zure enpresa-ideia
garatzeko

Enpresa-ideia bat garatzeko
24 laguntza

1.500 € zure negozioa
abiarazteko

Enpresa-jarduera berriak abiarazteko
15 laguntza

Zenbatekoak hurrengo kasu hauetan handitu egingo dira:

- **% 15 areagotuko da**, onuradunek 18 urte baino gehiago eta 30 urte baino gutxiago badituzte.
- eta beste **% 15, emakumeak** badira.

Ez itxaron gehiago...
Eskaerak aurkezteko epea:
2016ko uztailaren 1era arte

Pertsona ekintzaileentzako laguntzak



Informazio gehiagorako:

EGAZ TXORIERRI

Tel. 944 536 370 • Fax 944 531 344 • egaz@txorierri.eu

www.txorierri.eu

“Talde erakargarria gara”

ZAMUDIO KIROL ELKARTEA

Zamudio Kirol Elkarteak (KE) bere historiako denboraldirik onena egin du eta, ziur asko, datorren denboraldian Bigarren B Mailan jokatu du. Futbolariak Liga irabazi dute eta klubaren zuzendariek 100.000 euro lortu behar dute, aipatutako mailan jokatzeko. Lan txukuna jokariena eta teknikariena, eta, dirua lortu ala ez, baita batzarkideena ere.



t: Gaizka Eguzkitza / a: José María Celador

“Denboraldia zoragarria izan da. Hasiera batean, igoera lortzeko kanporaketetara heltzea zen helburua, eta hori lortzeaz gain, Liga ere irabazi dugu lehendabizi. Jardunaldi gehienetan zehar lider ibili gara eta, nire ustez, merezitako saria lortu dugu. Eta hori gutxi izango balitz, datorren urtean Errege Kopa jokatu dugu eta horrek ilusio handia ematen digu”, esan du Fidel del Prado presidentek. Fidelek amets egiteko gogoia du. “Datorren urtean, azkenean, Bigarren B Mailan jokatzeko badugu, Bigarren Mailara igotzeko sartuko gara lehian. Eta Kopan, ea kanporaketa batzuk gainditu ahal ditugun eta Gazituagara Bartzelona eta Real Madril datozen (kar, kar). Ingalate-

*Ea Kopan kanporaketa
batzuk gainditu ahal
ditugun eta Gazituagara
Bartzelona eta Real
Madril datozen”*

rran Leicester taldeak irabazi du Liga; zergatik ez dugu guk zerbait handia egingo?”

Oso zaila da Hirugarren eta Bigarren B Mailan nagusitzea, taldeen arteko oreka handia delako. Eta Zamudiok egin duena benetan azpimarratzekoa da, eskarmen-turik gabeko jokalariz betetako talde

batekin lortu duelako. “Aurten jaso dugu saria, baina azken urteotan egindako lanaren emaitza da. Hasieratik argi genuen gazteen aldeko apustua egin behar genuela. Gazteek futboleko arrakasta izateko gogoia dute eta guk aurrera egiteko aukera ematen diegu, eta hori ez da bate-re ohikoa. Taldean 19 jokalaririk izan ditugu aurten; eta haietako 11k 23 urte baino gutxiago dute; eta haietako 8 aurten edo iaz hasi ziren nagusien mailan jokatzeko”, dio Ibon Etxebarrieta entrenatzaileak.

Zamudio talde txikia da Bigarren B Mailan jokatzeko, “familia handi bat bezalakoa”. “Guztiok laguntzen diogu elkarri, eta denetarik egiten dugu: jokalariek, teknikariak, batzarkideak...”, dio Fidelek. Izan ere, zuzendaritzan ere egitura txikia dute. “Hiru lagunaren artean daramagu dena:



Rubén, diruzaina; Iñaki, presidenteordea; eta ni neu. Oso gogorra da, eta jende gehiago inplikatzeko Bigarren B mailan jokatzeko behar dugun dirua batzea baino askoz zailagoa da. Ordu pilo bat ematen dugu klubean, eta doan ez du inork lan egin nahi”.

100.000 euro gehiago

Zamudio taldeak zelaian lortu du igorera, baina bulegoetan ere lortu behar du. Izan ere, Bigarren B Mailan jokatu ahal izateko, 100.000 euro inguru behar dute. Gaur egun, talde zuriak 150.000 euroko aurrekontua du, baina Bigarren B Maila Hirugarren Maila baino garestiagoa da. “Epaileek 1.000 euro gehiago kobratzen dute partida bakoitzeko; era berean, Bigarren B Mailan zortzi fitxa profesional

lezama
consultorio veterinario
albaitaritza klinika
www.consultorioveterinariolezama.com

J.R. Galdona Madariaga
BI-515

Medikuntza orokorra
Txertaketak
Parasitoak hil
Mikrotxipa
Kirurgia
EKG
Analisiak
Ospitalizazioa
Ekografiak

servicio de urgencias
24h

94 455 56 19 Aretxalde, 21bis • 48196 Lezama

“Ez dugu igoeragatik kluba hipotekatuko, beste talde batzuek egin duten moduan”

“Zelaian igo izana eta bulegoan hori osatu ezin izatea penagarria izango litzateke”

eskatzen dizkizute eta bakoitzak 3.000 euro balio du; bidaia, hotelak eta beste batzuk gaineratu behar zaizkie haiei... Diru-sarrera berri batzuk etorriko dira, baina oraindik ezin ditugu horiek zehaztu”, azaldu digu Fidelek.

Zamudioko lagunak gogor dabilta lanean dirua lortzeko. Ekaineko alea itxi orduko, Fidelek ezin izan du baieztatu dirua lortu duten ala ez, baina presidentea baikor agertu da. “Enpresa batzuekin ibili gara harremanetan, eta gerta daiteke diru nahikoa batzea. Laster ikusiko dugu...” Dena dela, azken egunak eromena izan dira. “Milaka dei jaso ditut, inoiz baino gehiago: enpresak, kazetariak, zamudioztarrak... Batzuetan norekin hitz egiten dudana ere ez dakit (kar, kar)”.

Baikortasuna bai, baina baita zentzutasuna ere. “Dirua lortu ezean, argi dugu kluba ez dugula hipotekatuko, beste talde batzuek egin duten moduan. Zamudio beheko mailetako 12 talde daude eta haiek ere zaindu behar ditugu”, esan digu presidentek. “Zelaian igoera lortu izana eta bulegoan hori osatu ezin izatea oso penagarria izango litzateke. Batez ere, Zamudio leku zoragarri batean dagoelako kokatuta, enpresez inguratuta. Bigarren B Mailan jokatzek garrantzia du eta oihartzuna ekarriko die babesleei. Datorren urtean, Barakaldo, Sestao edo Real Madrid Castilla bezalako taldeak etorriko dira Gazituagara”.

Aldaketa asko

Bigarren B Mailan ala Hirugarren Mailan jokatu, datorren urteari begira, aldaketa asko egingo dituzte klubean. Esate baterako, jokalaririk asko desberdinak izan-

Galder Uriarte zamudioztarra taldearen kapitaina da



go dira. Dena dela, ez dute gazte berriak fitxatzeko arazorik izango, kluba “erakargarria” delako. “Gaur egun, oso ospe ona du Bizkaian, maila guztietan: umila, baina serioa da eta zin egiten duena bete egiten du. Gainera, lorpen handiak lortu ditu. Agintariak zentzudunak dira eta klubeko instalazioak onak dira. Eta horregatik guztia eragatik etorri nahi dute jokalariek hona. Gu ezin gara ekonomikoki beste talde batzuekin lehian sartu. Beraz, beste era batean erakarri behar ditugu jokalaririk”, dio Ibonek.

Gainera, entrenatzailea ere aldatuko dute. Ibon Etxebarrietak 11 urte eman ditu klubean, eta azken bost urteotan lehenengo taldeko entrenatzaile aritu da. “Zamudio nire etxea da, oso gustura ibili naiz, baina alde egiteko momentua heldu zait. Eta momenturik onena da, klubaren denboraldirik onena egin dugulako. Portugaletera joatea ez da atzera pausoa: igoera lortu ostean, badakit berriro Hirugarren Mailan ibiliko naizela, baina Por-



tugaleten pasioz bizi dute futbola, zale gehiago dago eta irabazteko premia ere handiagoa da. Beste erronka baten bila noa hara”.

Gorka Rueda izango da Ibonen ordezkarria. “Nire laguntzailea izan da aurtun, eta denbora pilo bat darama taldean.

Pertsona proposa da nire lekukoa hartzeko oso profesional ona delako. Ziur nago ondo egingo duela”, aipatu du Ibonek. “Maria-no aurreko entrenatzaileak 18 urte eman zituen eta berak utzi zuenean ematen zuen mundua amaituko zela. Ibonek primeran egin du eta Gorkak jarraipena emango dio Ibonek egindako lanari”, gaineratu du Fidelek.

Zamudioztarrek lan txukuna egin dute, bai, 3.000 laguneko herria ordezkatzen duen talde batek Bigarren B Mailan jokatzeko luxua baita. Baina luxuak garestiak dira. Beraz, gauza izango dira batzarkideak diru nahikoa lortzeko? Luxu hori ordaintzeko? Azken hitza enpresena izango da.



Zamudio eta Txorierri

Zamudio KE Txorierriko talde nagusia izan arren, herria ez dago erabat inplikaturik klubarekin. "Batzuk oso pozik daude igoerarekin, Zamudio izena lau haizeetara zabalduko dugulako. Beste batzuen ustez, aldiz, zamudioztar gehiagok jokatu beharko lukete taldean, nahiz eta taldeak maila baxuago batean jokatu. Guk hau erantzun dugu: batetik, maila ertaineko jokalariz zamudioztarrik ia ez dago; bestetik, zenbat jokalariz bilbotar dauka Athleticetik? Bestalde, taldea zamudioztarrez josita egon arren, Iraultza taldea bezala, herrikoek ez dute atxikimendu handiagoa adieraziko. Kanpoan etxean baino gehiago estimatzen dute lortu duguna", dio Fidelek, etsituta.

Taldean txorierritar bi daude, Arman Imaz derioztarra eta Galder Uriarte zamudioztarra. Azken jardunaldietan Gorka Delgado gazte mailako zamu-

dioztarrak ere hartu zuen parte. Galder kapitaina da eta ia bizitza osoa darama klubean. "Hamaika urte nituela sartu nintzen eta maila guztietatik ibili naiz. Gazte mailan nenbilela lehenengo taldean entrenatzeko deitu zidaten. Hori niretzat itzela zen". Geroago, lehenengo taldean sartu zen, baina ez zuen gehiegi jokatzen eta Santurtzi taldera joan zen.

Ezkerraldean bizpahiru urte eman zituen eta bertan igoera eta Zamora saria (gol gutxien jaso duen atezaina) lortu zituen. "Santurtzin nengoela Zamudioaren kontra jokatu nuen eta oso hunkigarria izan zen". Agian emozio-lotura horregatik, Galder herriko taldera itzuli zen betiko. "Zamudio talde aparta da: jokatzeko erraztasun handiak eskaintzen dituzte, irabazteko presio handiagorik ez dago, giro polita dugu taldean..."



TXORIERRIKO UDALA
EUSKALTEGIA

16-17 IKASTURTEA

MAILAK

- Habeko Curriculum berriko Azpimaila guztiak
- Beharrianetara egokitutako taldeak:
Osakidetza, IVAP, gurasoak, hezkuntza, mintzamina

NORENTZAT

- 16 urtetik gorakoentzat

ERRITMOAK

- Asteaz 10/7, 5/6/5... ordukoak
- Urritik ekainera
- Autoikaskuntza ikastaroak-BOGA

MATRIKULA ZABALIK

- Irailaren 1etik 23ra

DIRULAGUNTZAK ETA HOBARIAK

- Langabetuentzako beren beregi diruz lagundutako ikastaroak

Matrikula
zabalik



Herriko Plaza, 3 - DERIO



Tel. 94 454 00 62 - Fax. 94 454 27 38



euskaltegia.txorierri@bizkaia.org

Alkarteak eta herritarrek, ezinbesteko eragileak jaietan

Loiuko Udalak 50 ekintza baino gehiago antolatu ditu aurten San Pedro eta Santa Luzia jaietarako. Ekintzok herriko alkarteen parte-hartzegaz eta laguntasunagaz prestau ditu. Halan, besteak beste, kirola, dantzak, musikea, puzgarriak, txapelketa gastronomikoak eta magia eukiko ditue bost egunean zehar. Loiuztar eta txorieritar guztiak konbidatu-ta dagoz.

a: Loiuko Udala

Idoia Bilbao Loiuko kultura zinegotzia da. Azaldu deuskun moduan, Loiun ez dago jai-batzorderik eta jai-egitaraua Udalaren, bertako langileen eta herriko alkarteen lanaren emaitzea da. Eta hori begi bistan dago prestatutako ekintzei begiradtxua botaten badeutsegu. Halan, Irtxan Euskal Pilota Elkartek pregoia botako dau ekainaren 29an, eguaztenean, "aurten 10 urte bete dituelako". Horrezaz gainera, Pala Txapelketearen finalaurrekoak eta finalak antolatu ditue eguazternerako, eguenerako eta zapaturako.

Esan dan moduan, herriko beste taldeek be parte-hartze aktiboa eukiko dabe jaietan. Gure Etxea nagusien alkarteak, esate baterako, bazkaria antolatu dau eguenerako, eta ostean, bilbainadak eukiko ditue Iñaki Basabegaz. Li Karate Loiuko Klubak eta Taekwondo Doyan Yeol Klubak be arte martzialen erakustaldia eskiniko dabe egunean bertan. Beren aldetik, Loiuko Bakarrak gazteen alkartekoek herriko gazteei zuzendutako bazkaria egingo dabe barikuan, eta egun berean pelikula bat emongo da Loiuko Lastana alkareren eskutik. Larrakoetxe herri kirol alkarteak idi probak antolatu ditu domekarako. "Alkarteen jaietan ez ezik Udalak urte osoan zehar antolatzen dituan ekitaldietan be emoten deuskue euren la-

guntasuna. Beraz, jai-egunetan be euren momentua izatea gura dogu".

Loiuko San Pedro eta Santa Luzia jaien helburua da herritarrek kalera ateratzea, ondo pasatzea eta herria girotzea, eta kanpotik datozenek Loiu ezagutzea. Horretarako, jai-egitaraua zabala prestau da, zeinetan herritar guztientzako ekintzak sartu diran, ume, gazte, heldu zein nagusientzat. Egongo dira, besteak beste, umeentzako puzgarriak eta marrazki lehiaketak dantza lehiaketak eta dantzaldiak, kirola, bazkariak, Zumba saioa, triki-poteoa... eta gastronomia.

Kontzertuak

Tortilla Txapelketea hirugarren aldiz egingo da eta 300 euro banatuko ditu sarritan: 150 euro, txapeldunarentzat; 100 euro, bigarren lotzen danarentzat; eta 50 euro, hirugarrenarentzat. Edozelan be, ikusmin handiena sortzen dan jaietako hitzordu gastronomikoa Paella Txapelke-

tea da. XII. Paella Txapelketeak nobedade bi ekarriko ditu aurten. Alde batetik, eta gaur egungo egoera ekonomikoa kontuan hartuta, eguzki-oihala alokatzea merkeagoa izango da: igaz, esate baterako, 70 euro balio eban; eta aurten, 40 euro. Bestetik, diru-sariak emongo dira. Guztira, 12 sari egongo dira, baina inportanteenak lehenengo laurak izango dira: 250 euro, irabazlearentzat; 200 euro, bigarrenarentzat; 150 euro, hirugarrenarentzat; eta 100 euro, laugarrenarentzat. "Neurri barri horreek biek jentea txapelketan parte hartzera animetea dabe hel-

*Eszenatokira Celtas
Cortos, Esne Beltza,
Trikizio eta McOnak
taldeak igongo dira*

*Paella Txapelketak
nobedade bi ditu: toldoa
alokatzea merkeagoa
izango da eta diru-sariak
emongo dira*





buru. Halanda guztiz be, Udaletik argi itxi gura dogu lekua edo toldoa hartzeko lehenetasuna txapelketan aurreko urteetan parte hartu dabeneke euki dabela". Beraz, betiko parte-hartzaileei bermatu egin deutsee, halan gura izan ezkerro, txapelketan parte hartzeko aukerea.

Zalantza barik, kontzertuak dira jai-egitarauaren ekintzarik garrantzitsuenetarikoa. Barikuan, Celtas Cortos eta Trixizioa igongo dira eszenatokira, eta zapatuan, Esne Beltza, McOnak eta Dj Ibai Sanchez. "Zapatukoak gazteakaz adostutako taldeak dira. Udalak oso hartu-emon ona dauka gazteakaz, eta ahalegina egiten dogu beti euren eskaerei erantzuna emoteko eta hareek gustuko dabene musiketa ekarteko". Zapatu gauean doako autobus-zerbitzua egongo da Txorierriko beste herrietatik Loiura joateko eta etxera itzultzeko, eta hori be gazteek eurek eskatutako zerbitzua da. "Merezi dauan zerbitzua da, jenteak erabilten daualako

eta Loiura hurbiltzen dalako". Autobusak gaueko 10etan eta 11etan urtengo dau Larrabetzutik, eta geldialdia egingo dau Txorierriko etorbideko autobus-geltoki guztietan. Etxera itzultzeko autobusak goizaldeko 3etan, 4etan eta 5etan urtengo dau Loiutik, eta gainera, beste autobus bat ipiniko da Ibarrekolandaraino. Autobus honek ordutegi berbera eukiko dau.

Alai

Domeka arrastian be kontzertu erakargarria egongo da: Oreka TX. Baina aitatu beharra dago goizean sokatira txapelketea izango dala. Sokatira txapelketea igaz ez zan egin eta aurtan berreskuratu egin da. Eskupelota txapelketea be egingo da domekan.

Jai-gunea betiko moduan atonduko da. Udaletxeko plazan txosna bi ipiniko dira eta hareek eroateko ardurea Larra-koetxe herri kirol alkarteak eta Loiuko Ba-

Zapatu gauean doako autobusa egongo da Txorierriko beste herrietatik Loiura joateko eta etxera itzultzeko

karrak gazte alkarteak eukiko dabe. "Igaz karpea ipini genduan eta, herritarren aldetik oso balorazio positiboa euki dauanez, aurtan be jarriko da, bertan kontzertuak, bazkaria... egiteko". Ekitaldiak Aran-sotegi enparantzan, aterpean eta paellen zelaian be egingo dira. "Jai erakargarriak eta guztion gustukoak izango doguz. Loiuztar guztiak, eta txorierritar eta bisi-tari guztiak be, animau gura doguz jaietan parte hartzera, alai, eta kalera urtetera, beren poza adierazotera".

Egin zaitez AIKOR!lagun



Izen-abizenak: _____

Helbidea: _____

Telefonia: _____

e-posta: _____

IBAN+Bankuko zenbakiak: _____

Urteko kuota: _____

Aldizkaria jasotzen duzu? _____

Sinadura _____

30 euro _____ Beste bat _____

Orri hau helbide honetara bidali:

AIKOR! Aldizkaria

Aresti kalea 2, beheka - 48170 - Zamudio



15/1999 Lege Organikoari jarraituz, hau jakinarazten dizugu: formulario honetan sartzen dituzun datu pertsonalak fitxategi batean gordetako dira. Fitxategiaren erantzulea TOTODAN TXORIERRIKO ELUSKARA ELKARTEEN FEDERAZIOA da eta datuok kudeatuko ditu. Kontrakoa esaten ez diguzun bitartean, zure datuak kudeatzeko baimena dugula ulertuko dugu. Dena dela, edozein momentutan datuok eskuratu, baliogabetu eta zuzendu ahaliko dituzu. Horetarako, helbide honetara jo behar duzu: ARESTI KALEA 2-BEHEKA, 48170 ZAMUDIO (Bizkaia).

Jai-egitaraua

Ekainak 29, eguaztena. San Pedro

- 13:00: Mezea eta organu kontzertua, Pedro Guallarren eskutik.
- 13:50: Aurrekua.
- 14:00: San Pedro kopaua.
- 17:00: Pala Txapelketearen finalaurrekoa (2. kategoria), Irtxan pelota alkarteak antolatua.
- 18:00: Pala Txapelketearen finalaurrekoa (1. kategoria), Irtxan pelota alkarteak antolatua.
- 19:30: Dantzen agerraldia, Goi Alde dantza taldearen eskutik.
- 20:30: Txupina eta pregoia, Irtxan pelota alkartearen eskutik. Ostean, Pan-

txikoren igoerea eta VI. Kartel Lehiaketako sariak banatzea.

-21:00: Dantzaldia, EGAN taldeagaz.

Ekainak 30, eguena. Santa Luzia

- 12:00: Kalejirea.
- 13:00: Mezea eta organu kontzertua, Miriam Cepeda eta Luis Alberto Requejoren eskutik.
- 14:30: Nagusientzako bazkaria eta bilbainadak, Iñaki Basabegaz. Gure Etxea nagusien alkarteak antolatua.
- 17:00: VI. Dantza-lehiaketea.
- 18:00: Pala Txapelketearen finalaurrekoa (2. kategoria), Irtxan pelota alkarteak antolatua.

-19:00: Pala Txapelketearen finalaurrekoa (1. kategoria), Irtxan pelota alkarteak antolatua.

-20:00: Karate erakustaldia, Li Karate Loiu Klubaren eskutik.

-20:30: Taekwondo erakustaldia, Taekwondo Doyan Yeol Klubaren eskutik.

-21:00: Dantzaldia, Dj Xaiborregaz.

Uztailak 1, barikua

- 12:00: Puzgarriak.
- 14:30: Gazteentzako bazkaria, Loiuo Bakarrak alkarteak antolatua.
- 18:30: Filma, Loiu Laztana alkartearen eskutik.
- 19:45: Ruta 66 ibilpidearen gaineko berbaldia, liburutegian.
- 21:00: III. Tortilla Txapelketea: tortillak aurkeztea.
- 22:00: Tortilla Txapelketako sariak banatzea.
- 23:00: Kontzertuak: Celtas Cortos eta Triki.
- Uztailak 2, zapatua**
- 10:00: XII. Paella Txapelketea.
- 11:00: Puzgarriak.
- 11:00: Umeentzako marrazki lehiaketea.
- 12:00: Zumba saioa.
- 13:00: Face painting (arpegia margotzea).
- 13:30-14:30: Paellak aurkeztea.
- 16:30: Apar jaia.
- 16:30: Mus txapelketea, Loiuo Bakarrak alkarteak antolatua.
- 17:30: Paella Txapelketako sariak banatzea.
- 18:00: Five Direction taldearen kontzertua, paellen zelaian.
- 18:30: Pala Txapelketearen finala (1. eta 2. kategoria), Irtxan Pelota alkarteak antolatua.
- 23:00: Kontzertuak: Esne Beltza, Mc Onak eta Dj Ibai Sanchez.
- Uztailak 3, domeka**
- 11:30: Euskadiko Sokatira Txapelketea, paellen zelaian.
- 12:30: Eskupelota txapelketea.
- 13:30: Triki poteoa.
- 17:30: V. Padel Txapelketearen finala.
- 18:00: Tor magoa.
- 18:30: Idi probak, Larrakoetxe herri kirol taldeak antolatua.
- 20:00: Kontzertua: Oreka TX.
- 22:00: Txokolatadea eta Pantxiko erretzea.





Uztailean zabalik

Baserri Antzokia egitasmoa 2010ean hasi bazen ere, 2015eko urrira arte ez zitzaizen eraikitze lanei ekin, eta, gaur egun, erremate txiki batzuk baino ez dira falta amaitzeko. Hori dela-eta, Baserri Antzokia uztailean zabaltzea dauka aurreikusita Baserri Antzokia Fundazioak.

Baserria euskara eta euskal kultura indartzeko erreminta indartsua izatea nahi du Fundazioak, eta, horren harira, hasierako kultur plan orokorra zehazten eta taxutzen dabilta. Zuek ere nahi dituzuen ekarpenak eta iradokizunak egin ditzakezue zeuen herriko elkarten bidez edo Fundazioaren bidez. Era berean, eta kultur ildoak indartzeko asmoz, Baserri Antzokia Fundazioak eta Mendebalde Kultur Alkarteak elkarlanerako hitzarmen bat egin dute. Modu horretan, Baserri Antzokiaren kultur esparrua zabaldu egingo da bai edukiei bai eragin geografikoari dagokienez.

Bestalde, Fundazioko kide guztiak boluntarioak direnez gero, uztailaren az-

ken astetik aurrera pertsona bat hasiko da lanean, kultur programa gainbegiratzeko eta Fundaziorako kideak egiteko. Izan ere, dagoeneko, kideak lortzeko kanpainari berrekin zaio, eurei era guztietako zerbitzuak eskaintzea baita Baserri Antzokiaren zeregina.

Azkenik, proiektu hau, kultur proiektua izateaz gain, enpresa proiektua ere bada. Hala, aipatzekoa da hasieratik hamabi lanpostu sortu direla baserriko zerbitzuak aurrera eramateko, eta beste lanpostu bat, arestian aipatu dugun moduan, kultur plana gainbegiratzeko eta kideak egiteko.



Hamahiru lanpostu sortu dira, eta elkarlanerako hitzarmena sinatu da Mendebalde Kultur Alkartearekin



Gutxi batzuen pribilegioa

Txorierrik azken urteetan izan duen musika jaialdi izugarrienetarikoa izan da "BBK Music Legends Fest"-a. Bertan izan ziren Amparo Sánchez, David Lindley, Corizonas, Elliot Murphy & Band, Los Lobos, Hey Mr. Neken, The Fakeband, Niko Etxart eta Hapa Hapa, Nina Hagen Band, Bob Geldof, Graham Nash eta Ian Andersonen Jethro Tull bandak. Kartela izugarria izan bazen ere, uste baino jende gutxiago hurbildu zen Sondikara. Hala ere, eskainitako ikuskizuna espero bezain ona izan zen.



Niko Etxart.



Los Lobos.

t/a: Jon Goikouria Larrabeiti

Hodeiz beteta eta euri mehatxuarekin, kontzertuak Ola zentroan ipinitako karpa batean egin ziren, zarata isolatzen zuten zuhaitzez inguratutik. Neurrigabe-ko eszenatokia, txosna kilometrikoa eta hainbat *merchandising* karpa txiki. *Mikro BBK LIVEa* zirudien. Hasiera batean, ematen zuen Olako 50.000 m²ak txiki xamar-rrak izango zirela espero ziren 4.000 pertsonentzat, baina azkenean ez zen inolako espazio arazorik egon. Gainera, bertara arazorik gabe iristeko erraztasunak ipini ziren: tren zerbitzu bereziak, aparkalekuak eta seinalizazio sistema eraginkorra.

Jaialdia berez ahul xamar hasi zen ostiralean euri mehatxuagatik alde batetik, eta Amparo Sánchezek, 16:30ean, eskaini zuen kontzertuagatik, bestetik. "Music Legends Fest"-eko kontzerturik desagoki-ena, agian, estilo aldetik. Ikusle gehienak, Ola zentroko ikasle gutxi batzuk eta jaialdira heltzen hasi ziren lehen ikusleak izan ziren. David Lindley-k kalitate izugarritzko



Corizonas.

folk, blues eta bluegrass erreperitorioa eskaini zion gero eta jendetsuagoa suertatzen ari zen publikoari.

Corizonas taldeak (Coronas eta Arizonas Baby musikarien banda) hartu zuen erreleboa musika elektrikoa eta indartsuagoa eskainiz. Iluntzean, Elliot Murphyren power hirukoteak zeharo harritu zuen publikoa, rock-blues-folk kontzertu elektro akustiko indartsua eskainiz. Elliot Murphy bera publikoaren artean izan zen aurreko kontzertuez gozatuz eta jarraitzaile batzuekin batera argazki batzuk eginez. Gaua ixteko, Los Lobos talde estatubatuarra izan zen. Hasieran, bazirudien eszenatokira igo zen seikote nagusiak ikusleak aspertuko zituela, baina usteak erdi ustel: 600 pertsona inguru batu zituen kontzertu honek, eta rocka, tex-mexa, cumbia, jarochoa eta mexikar boleroetatik igaroz, gaua borobildu zuten *Volver, volver* edo *La Bamba* abesti mitikoekin. Jendea liluraturik bueltatu zen etxera gauerdialde-ra.

Nina Hagen.



Elliott Murphy.



Hey Mr. Neken taldeak The Eagles-en bertsio klasikoekin hasi zuen bigarren eguna, The Fakeband getxoztarren pop akorde alaien jarraipenarekin. Ondoren, Iparraldeko Niko Etxartek eta Hapa Hapa bandak, 'eskualdun' bakarrak, rock blues originala eskaini zuten euskaraz eta frantsesez. Eten luze baten ostean, Nina Hagen *showoman*-ak kontzertu merezigabea eskaini zuen: emanaldi osoan eserita egon zen, eta haizeak eramaten zituen abestien letren paperez inguratutik. The Doors taldearen *Riders of the Storm* bezalako altxorak hondoratu eta hainbat blues klasiko erabat suntsitu zituen bere ahotsak. Hala

eta guztiz ere, *showak* jendetza erakarri zuen lehen ilaretara, Alemaniatic espresuki etorritako fan taldea barne.

Bob Geldof, Graham Nash eta Jethro Tull taldeek merezitako amaiera eman zioten "BBK Music Legends Fest" lehen edizio honetako jaialdiari. Espero ziren 4.000 pertsona horien laurden bat baino gutxiagok zapaldu zuten Olako pista bigarren egunean, agian sarreraren prezio neurrigabeagatik? (52,00 €). Hori bai, etorritakoek Txorierri izan duen nazioarteko musika jaialdi onenaren lekukoak izan ziren eta zail edukiko dute bertan entzundakoa ahaztea.

Amparo Sánchez.



Ortuan be hobe da prebenitzea...

t: Zamudioko Udalak babestua

Nekazaritza tradizionalak desoreka asko sortzen ditu ortuan, besteak beste, pestizida eta ongari kimikoak erabiltzen diralako. Adibidez, intsektu zehatz bat hilteko, pestizida kimiko bat erabiltzen badogu, intsektu hori ez ezik beste intsektu batzuk eta lurlean dagozan mikro-organismoak be hilko doguz. Gainera, landarea makaldu egingo da. Are gehiago, landarea bizkortzeko, ongari kimikoa botaten badeutsagu, beste arazo batzuk sortuko dira, eta gurpil zoro baten sartze-ko arriskuan egongo gara, arazo horreei aurre egiteko, pestizida kimikoak barriro erabiltzen badoguz. Akabuan be, patogeneoak produktu horreek jasango ditue, eta, zer esanik ez, produktuok, gizakion osasunerako oso kaltegarriak diranak, landaretan metatzen joango dira.

Nekazaritza ekologikoaren filosofia guztiz ezbardina da, izan be, ez deutsee izurritei erasoten, baizik eta ez egotea prebenitzen dau. Arazoak ortuan desorekak dagozanean datoz, landarea ahul dagoanean edo hari ur gitxi botaten badeutsagu. Beraz, lehenengo eta behin pentsau behar dogu zergaitik daukagun arazo hori. Eta horretarako, naturari bera-ri erreparau behar deutsagu.

Danetarik

Biodibertsitate handia dago naturan, eta ez dago izurriterik. Guk be saiatu behar dogu gure ortuan danetarik eukiten: landara asko, zorroak, bedarra... Zenbat eta dibertsitate handiagoa, hainbat eta gaxagoa izango da ortuan izurriteren bat egotea. Aurreko artikuluan esan moduan, labore bateragarriak ipintea be bada mesedegarria: esate baterako, tomate ondoan kipulea ipinten badogu, kipulearen usainak tomatea jaten dauan euli zuria uxatuko dau. Tazeta izeneko landarek be substantzia bat botaten dau, tomateen sustraia jaten dituen harrak hiltzen dituana. Era berean, inportantea da laboreak txandatzea eta beti leku berean ez ipintea. Halan, labore hori jaten dauan intsektua, ondo... ez da urtero leku berean egongo, bere elikagaiaren zain. Beren aldetik, erleek eta erlastarrek

... landarak osatzeko neurriak hartu behar izatea baino. Nekazaritza ekologikoaren gaineko artikulua-sailagaz jarraitzen dogu, eta oraingo honetan Andoni Arrietak azalduko deusku ortua zelan atondu izurriteak saihesteko, eta izurriteak edo bestelako arazoak balegoz, horreei zelan aurre egin.



*Arazoa zergatik
daukagun pentsau
behar da, eta
naturari berari
erreparau*

landarak polinizauko ditue eta tomateak, kalabazinak... eder haztea ekarriko dabe.

Lurra eta bertan dagoan bizitzea be ondo zaindu behar doguz. Era egokian ureztatu behar dogu, eta era egokian ongarritu behar dogu. Baita landu be bai, asko lantzen badogu –adibidez, golde belarriduna erabilita–, landaren artean, lurlean... dagoan bizitzea lurperatuko dogulako. Bestetik, ortu askotan landarek ez daukie ezer beren alboan. Belar txarrak kendu behar dira, jakina, baina belar ba-

*Zenbat eta dibertsitate
handiagoa, hainbat
eta gaxagoa izango
da ortuan izurriteren
bat egotea*

xuak ixten badoguz, hezetasuna mantentzen lagunduko deuskue, eta ortuko bazterretan bedar altua, lorak edo heskaiak badaukaguz, zorroak-eta bertan batuko dira. Akabuan, gomendagarria da tokiko barietateak landatzea, ingurura eta eguraldira ohituta dagozalako, eta ondoekiko erresistente egiten diralako.

Landarak berbztuko neurriak

Mozorroek-eta landara ahulei erasoten deutsee beti. Horregaitik, gure ortuko

ORTUAN ERABILTEKO PRODUKTUAK, PRESTAKINAK ETA TRIKIMAILUAK

–**Bacillus bakterioa.** Ur gaz nahasten da eta beldarrak hiltzen ditu.

–**Ferramol, bareentzat.** Burdin oxidoa da, naturala. Bareen kontrako beste aukera bat hau da: plastikozko botila bat eperditik ebagi eta garagardoz beteko dogu. Lurpean sartuko dogu. Garagardoa bareak erakarriko ditu eta ha edaten dabenean, hilko dira. Ostera, lapa-bedarrak eta Consuela izeneko landarak ipini daiekguz ortuko bazterretan. Bareak hara joango dira aterpe bila, eta guk landarak hartu eta zaramara bota daiekguz, bareakaz eta guzti, produkturik bota barik. Era berean, borraja bota daiekgu letxuga eta tomate inguruan. Borraja arantzak daukanez, bareak-eta ez dira hurbilduko. Edo iratzea bota, oso eraginkorra dana, aza eulia uxatzeko.

–**Asun-prestakina.** Asun fresko kilo bakoitzeko, 10 litro ur botako dogu ontzi baten. Estalgia ipini eta leku fresko baten itxiko dogu. Apur bat eragingo dogu egunero eta pixkanaka-pixkanaka joango da irakiten. Burbuilarik ateraten ez danean, irazi eta ura gordeko dogu. Gero, litro bat asun-prestakin hartu eta 10 litro ur gaz nahastuko dogu. Hamabost litroko edukiera daukan ureztatzeko motxila baten 1,5 litro prestakin botako dogu, eta gainontzekoa uraz beteko dogu. Prestatutakoa intsektizida ezin hobia da eta hamar-hamabost egunero botako deutsegu landare. Prestakina lukibuztanagaz be prestau daiekgu, landarak indartuko dituna eta onddoekiko erresistente bihurtuko dituna. Edo iratzeagaz. Gainera, prestakinok ureztatzeko motxilan nahastu daiekguz, eta landare batera bota.

–**Feromona-tranpea.** Feromonek tomateari erasoten deutson beldarra erakartzen dabe. Tranpearen hondoan kolea dago eta beldarra hor lotzen da itsatsita. Tranpa batez nahikoa da ortu osorako.

–Hagaxka baten puntan kristalezko botilatxo bat ipini eta lurean sartuko dogu, satorrak dagozan lekutik hurbil. Dardarek satorrak uxatuko ditue.

Kontsultea:

Joseba, Zamudio

Piperrak landatu dodaz eta batzuk txiki eta hori dagoz. Zergaitik izan daiteke? Zer egin daiket?

Hainbat arrazoiengaitik izan daiteke, esate baterako, ongari gitxi daukielako. Artikuluan aitaturako asun-prestakina bota deiekguz. Prestakin horrek nitrogenoa emongo deutso landareari, indarra, eta piperrak berde ipiniko dira. Prestakinik ez badaukagu, asunak zatika ebagi daiekguz eta landarearen gainean bota. Asunak usteltzen joango dira, eta landareari ongingo deutesie. Berde ipiniko da berririo.

landararen bat ahul dagoala ikusten badogu, ha berbizten saiatuko gara, era egokian ureztatuz eta ongarriruz. Hailanda guztiz be, landare indartzea lortzen ez badogu, edo arazoak jarraitzen badau, ondoko neurriak hartu daiekguz. Hori bai, neurri arinenetatik zorrotzenetara joango gara beti.

–Har gitxi badagoz, eskuz kenduko doguz.

–Erasoa jaso dauan landarearen ondoan labore bateragarri bat landatuko dogu, erasotzailea uxatzeko.

–Ortuko bazterretan erasotzaileak erakartzen dituen landarak ipiniko doguz. Adibidez, ziza ilun-hankahorixkek (*capuchinas*) eta hilerri-lilieek (*caléndulas*) harrak erakartzen ditue eta aza eulia uxatzen dabe.

–Borroka biologikoa, hau da, erasotzaileak hiltzen dituen intsektuak-eta askatzea. Nesiriocodis izeneko eltxoek, esate baterako, tomateari erasoten deutson euli zuria jaten dabe, eta marigorrigoek, landare-zorria. Baina ortuan biodibertsitatea badago, ez da beharrezkoa izango neurri hau erabiltea.

–Landare-jatorriko intsektizidak erabiltea, eragina moztarretan-eta daukielako, eta ez landaran.

–Landare-jatorriko intsektizidak erabiltea, landareari min apur bat ekartzen deutesienak, baina personontzat kaltegarriak ez diranak. Dana dala, zenbat eta produktu gitxiago erabili, hobeto, beti alde txarren bat eukiko dabelako.



Feromona-tranpea.

Elkarbizitza, heziketa eta begirunea

TXAKUR LAGUNAK, DERIOKO TXAKUR ELKARTEA

Oso elkarte gaztea da joan den urteko irailean Derion martxan ipini zena baina dagoeneko 120 bazkide dituen. Beren maskotak maite dituzten herritarren eta halako sentimendurik ez duten derioztarren artean zubi bat eraikitzeke sortu zen elkarte. "Eguneroko lanari esker bagoaz gure maskotak gizartera hurbiltzen. Pixkanaka-pixkanaka erakutsiko dugu haienganako dugun maitasunak edozein esfortzu merezi duela".

t: Itxaso Marina

Zuzendaritza-batzordetik azaldu digutenez, Txakur Lagunak elkartearen helburua animoak baretzeko tresna izatea da, eta herriaz herritar guztiak disfruta daitezela lortzea. Horretarako, hainbat ekintza antolatzeke asmoa dute: hitzaldiak, solasaldiak, erakustaldiak, lehiaketak... "Haiek guztiak gure maskotak gizartera hurbiltzera zuzenduko ditugu. Izan ere, auzokideak hezi nahi ditugu eta horretarako ezinbestekoa da informazioa". Lehenengo ekitaldia hain zuzen ere maiatzaren 20an egin zuten. Hura zoonosi eta txakurren gorozkietan sorburua duten gaixotasunei buruzko hitzaldi-solasaldia izan zen. "Pozik gaude bertan hitz egin eta eztabaidatu genuenarekin. Gainera, Esther Apraiz alkateak eta Joseba Udal-tzaingoaren buruak ere hartu zuten parte ekitaldian, eta hori eskertzen den gauza da". Irailean bigarren hitzaldia egingo dute. "Txakurren gorozkiak ez hartzeak dakartzan gaixotasun eta infekzioekin ja-

rraituko dugu, baina beste gai batzuen inguruko hitzaldiak ere antolatu nahi ditugu, hala nola heziketaren gainean edo txakurren portaeraren gainean".

Gainerako udalerrietan bezala, Derion ere badago arautegi bat animaliak edukitzeari buruz. Beste alderdi batzuen artean, bertan ezarri dira txakurren aisiarako guneak, gorozkiak jasotzea, eta animaliak kaletik zelan eraman behar diren. Jabeen betebeharrak, azken batean. Elkartearen esanetan, oso arautegi zorrotza da alderdi batzuei dagokienez, baina ez hainbeste beste alderdi batzuei erreparatuz gero. "Gorozkiak bai ala bai jaso behar dira. Horretan ez dago zalantzarik, gaixotasun eta infekzio-fokua direlako; eta ez bakarrik beste txakurrentzat, baizik eta guretzat eta gure seme-alabentzat ere. Hori dela-eta, nahiago genuke Uda-



lak gai honekiko erabaki sendoagoak hartzea. Baita garbitasun handiagoa egotea ere. Bestalde, gure maskoten aisiarako guneetan ez daude beharrezkoak diren zerbitzuak: bideak, pergolak, iturriak, bankuak, paperontziak... Idatzi bat bidali diegu udal ordezkariari zerbitzu horiek guztiak eskatzeko, eta gaia aztertzen da biltza. Dena dela, sinadurak batuko ditugu konponbidea azkartzeko". Era berean, ordutegi bat ezartzeko eskatu dute, txakurrak berdegunetan aske ibili ahal izateko. "Beste udalerriri batzuetan jadanik dagoen ordutegia da. Adibidez, 22:00etatik 08:00etara bitartean oso jende gutxi dago berdeguneetan, eta guk aprobetxatu ahal izango genuke txakurrak askatu eta haiekin jolastu ahal izateko".



Elkartearen helburua animoak baretzeko tresna izatea da, eta herriaz herritar guztiak disfruta daitezela lortzea

auzoKide
Finken administratzailea

LORENA GAMBOA AGUIRRE

Txorisol 4, behe B 48150 SONDIKA 634 410 470
aузokidefncas@gmail.com

Consulting Sondaika s.l.

Sabin Askolizaga
Aseguru agentia Allianz
609 475 746

Mixtura: 6 behe B 48150 Sondaika-Bizkaia
T.: 94 453 18 07
Faxa: 94 453 60 27



Maskotentzako lekuetan beharrezkoak diren zerbitzuak eskatu dituzte

Denbora-kontua

Txakurren, haien jabeen eta gainerako herritarren arteko elkarbizitza korapilatsua da batzuetan. Korapilatsua bezain inportantea, hala ere. Txakur Lagunak elkartetik ahalegina egingo dute elkarbizitza horrek okerrera ez egiteko eta ona izateko. "Gure maskotek poztasun handiak ekartzen dizkigute, laguntzen digute, baikortasuna ematen digute... Txakurrek ekartzen dituzten alde positiboak negatiboak baino askoz gehiago dira, eta arreta soilik alde negatiboetan ipintzea errealitatea ez ikustea da. Mezu hori helarazi nahi diegu derioztarrei. Elkarbizitzan

sinesten dugu gure helburuei heltzeko bide bakarra delako; guztiok batera eta inoiz ez bananduta".

Hasieran aitatu bezala, oso elkarte gaztea da Txakur Lagunak eta bere iraunkortasuna taldekideen erabakiek eta ekitaldiek zehaztuko dute. "Anbizio handiko helburua dugu: Txorierriko txakurren elkarte nagusia bihurtu nahi dugu. Gaur egun arte ez dugu bazkideak hartzeko inongo kanpainarik egin eta 120 lagun gara dagoeneko. Gure egiteek emango digute arrazoia edo isilduko gaituzte. Denbora-kontua da hori". Bitartean, herriko kultur bizitzan hartuko dute parte, elkarte osatu baino lehen ere egin duten moduan. "Derioko kultur bizitzan parte hartu ez ezik haren parte izan ere nahi dugu. Kultura heziketa da; eta heziketa, ezagutza eta begirunea. Gure etsaierik handiena ezjakintasuna da. Kultura etxe guztietara, herriko txoko guztietara ailegatzearen alde egongo gara beti, horrek derioztar guztiak auzokide hobeak egingo gaituelako".

I. Txakur Jaia

Txakur Lagunak elkartearen aurretengo ekintzarik garrantzitsuena izango da eta ekainaren 26an egingo dute Uribe parkean. Besteak beste, umeentzako tailerrak, txakur lehiaketa bat eta txakur bizkartzainen erakustaldia antolatu dituzte egun horretarako. "Umeentzako tailerra oso dinamikoa izango da, asper ez daitezen, eta lehiaketak, eskulanak... egingo dira. Gure helburua da umeek ondo pasatzea eta, txakurrei beldur badiete, beldur hori galtzea. Beren moztorroekin, marrazkiekin, eskulanekin... parte hartzea nahi dugu. Haiek dira etorkizuna".

Esan bezala, txakur lehiaketa ere egongo da, baina, epaimahaia Estatu-ko txakur txapeldunen jabeek osatuko duten arren, hura ez da ohiko txapelketa izango. "Helburua parte-hartzaile guztiek ondo pasatzea da eta euren maskotak jendaurrean erakustea. Txakurrek zerbait egiten dakiten edo ez, hori gutxienezkoa da. Horregatik, epaimahaia aukeratzen dituenek ez ezik parte-hartzaile guztiei ere emango diegu sari bana. Guztira 200 sari izango dira, haiek direlako gehienez onartuko diren parte-hartzaileak".

Bestalde, animaliak babesteko elkarteek euren lekua izango dute jaialdian, eta txakurrak adoptatzeko aukera ere izango da. Era berean, mantak, jostailuak, jana... uzteko gunea atonduko da, eta ezusteko ekintzaren bat ere izango da. Azkenik, Gatikako Txiki Eder zentroko txakur bizkartzainek erakustaldia eskainiko dute. Txakur horiek tratatu txarrak jasotzen dituzten emakumeak babesten dituzte. Sariak banatu eta zozketak egingo dira. "Datozen urteotan ere Txakur Jaia antolatzeari espero dugu".



Ikasturte biribila eduki dugu!



Perretxikotan.

Aurten, berbalagun taldeak herri guztietan osatu dira, Loiun izan ezik. Gainera, gurasolagun taldea egon da Sondikan eta Zamudion. Datorren ikasturteari begira, ahalegin berezia egingo dugu gaitzatzeko herrietan ere gurasolagun taldeak osatzeko, eta Loiun berbalagun taldea sortzeko. Berbalagunak zein gurasolagunak pozik azaldu dira egitasmoekin. Gurasolagun taldeetan, esate baterako, ekintza osagarriak egin dira taldeak apur bat dinamizatzeko. Horren haritik, parte-hartzaileek oso garrantzitsutzat jo dute egitasmoa, "gurasoen artean harremana euskaraz sortzeko, baita seme-alaben



Abadiñoako azoka.

artean ere". Era berean, eta beti esaten dugun moduan, ikasten ari denak edota ondo ez dakienak aukera dauka euskaraz beldur barik mintzatzeko eta inongo

Berbalagun egitasmoa urterik urte badoa sendotzen, eta horren adierazle proiektuarekin bat egin duten txorierriarrak dira, eta ikasturtean zehar antolatzen ditugun ekintza guztiak. Horiei esker, gogotsu eta alai ibili gara amaitu berri den ikasturtean. Gurasolagun taldeak ere ondo baino hobeto irten dira.

lotsa barik praktikatzeko. Bestalde, Berbalagun taldeetan ibili direnek ere balorazio positiboa eman dute egitasmoari buruz. Izan ere, taldeko solasaldiez gainera, ekintza oso dinamikoak egiteko aukera izan dute, euskaraz. Hala, eta besteak beste, museora joan gara, perretxikotan ibili gara edo txiste kontalari bat eduki dugu.

Txorierriko bira lehenengo aldiz antolatu dugu ikasturte honetan. Proposamen Berbalagun talde batetik etorri zen eta ekintza aurrera ateratzeko, talde bat sortu genuen. Taldea herri ezberdinetakoko lagunok osatu genuen eta guztiok oso



Ermitaz ermita ibilaldia.



Larrabetzuko lubakiak bisitatzen.



Mintza Eguna.



Gurasolagun proiektua.

Txorierriko bira.



gustura ibili ginen. Adin ezberdinetako jendea elkarrekin euskaraz ikustea ere oso polita izan zen. Halako proposamenak beti dira ondo etorriak, jendea pozik eta elkarlanean aritzea oso aberasgarria delako. Baina txorierritarron arteko harremanak sendotzeko eta euskara praktikatzeke ez ezik, erdaldunak euskal mundura hurbiltzeko ere baliagarria da Berbalagun egitasmoa. Askok, egitasmoan parte hartu baino lehen, euskal kulturarekin ez dutelako inongo harremanik, eta ostean, mundu berri bat ezagutzen dutelako. Zentzu horretan, euskaldun zaharrak ezinbestekoak dira egitasmorako eta eu-

ren lana eskertzekoa izango da beti, aste-oro ordu bat euskararen alde egiten dutelako, debalde, hala sentitzen dutelako. Dena dela, euskaldun zahar gehiago behar dugu taldeetan, eurak barik ezin dugulako egitasmoa aurrera atera. Gazteak eta gurasoak inplikatzeko ere ondo legoke, etorkizuna direlako.

Antolatzaileoi dagokigunez, gu ere pozik baino pozago gaude egitasmoaren ibilbidearekin. Taldeak sortu eta euskara entzutea beti da pozgarria. Gainera, egitasmoa nahiko beharrezkoa da herri batzuetan, euskara kalera ateratzeko. Euskara kalean behar dugu, herritarrena



**berba
lasun**

INFORMAZIOA:
Telefonoa:
635 75 35 95
E-mail:
txorierr.berbalaguna@gmail.com
Bloga:
www.aikor.com/txokoa/berbalagun
Antolatzaileak:
TOTOAN TEEF
Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea

delako. Jakin eta egin! Azkenik, nahiz eta kopuruarekin pozik egon, gure helburua jendea pozik izatea da, euskaraz goza daitezela. Eta ez daukagu mugarik, kalean zenbat eta euskaldun gehiago, hobeto! Urrian berriro ipiniko ditugu taldeak martxan, zaharrak zein berriak.




**ASADOR
ARAMENDI**

**EZKONTZAK
BATAIOAK
BANKETEA
JAUNARTZEAK**

Arteaga auzoa, 119
Tfnua.: 94 452 11 58
ZAMUDIO

GALAISA Eteagabeko ordutegia

Estetika eta ile-apaindegia
94 453 04 85 - 94 471 10 51



Sabino Arana 1-3, SONDIKA

ERREKA **ONDO**
ETXEA

Eguneko menua, asteburuko menu berezia, karta, enpresen bazkariak, jaunartzeak, familien bazkariak

Arteaga, 80
Zamudio 48170 (Bizkaia)
Tfnua.: 94 452 14 19
Faxa: 94 452 26 29

Ford **Goiri'78 s.l.**
Zerbitzu ofiziala



Izarza Pol.
48150 Sondika
Bizkaia

94 453 25 15
94 453 39 31

IRATXO
gozotegia



tarta pertsonalizatuak
trufak
telak
pastelak
pastak

Mikel Zurutu, 2 - 5. larrea • Sondika, 48150 • 94 453 89 19



t: Xabier Díaz, BTEkeko zuzendaria

Gu eta robotak

Robotek inguru eta gizakiekin hobeto erlazionatzeko, beste gaitasun batzuk txertatu behar dizkiegu

BTEken daukagun robot margolaria kristalezko kaiola batean dago, gizajoa. Robotekin lan egiten duen tailerren batean egon bazarete, konturatu zineten horrela izaten dela beti: roboten eremua gure babeserako mugatuta dago, hesi, seinale edo burdin sareen bidez.

Kixmi, gure beste robota, gurekin hainbat elkarrekintza egiteko gai da. Pozik edo triste agertzeko gaitasuna dauka, gurekin jolasteko, edo pentsatzen duguna asmatzeko... Giza-Robot elkarrekintza gero eta esparru garrantzitsuagoa da. Hasieran, robotek lan arriskutsuak edo errepikakorak besterik ez zituzten egiten. Lana zehaztu, robota diseinatu eta programa bat ipintzen zitzaion, lanak egin zitzaion. Arazoa, inguruan aldaketa edo ezustekoren bat gertatzen zenean zetorren, robota ez zelako horri erantzuna emateko gai.

Lan eremu konplexuagoetara joz gero, robotek hobeto erlazionatu behar dute inguruarekin eta gizakiekin, eta horretarako, beste gaitasun batzuk garatu eta txertatu behar dizkiegu. Ingurumenarekin erlazionatzeko, adibidez, gero eta sentore gehiago ipintzen dira robotetan. Gainera, "gauzek" egingo dutena aurrei-

kustea guk, gizakiok, egingo duguna aurreikustea baino errazagoa da. Gauzek fisikaren legeak errespetatzen dituzte eta, beraz, dena sentoreen bidez ondo neur-tuta badago eta programa txukuna egin badugu, ez da arazorik izango. Gizakiok erlazionatzeko, berriz... Hor daude zailtasuna eta erronka.

Etika

Ikuspegi askotatik landu beharreko arazoa da. Ikerlari batzuk jadanik badabil-tza ikasteko gai diren robotak diseina-tzen. Egoera berriei aurre egiteko, robot horiek orain arte bizi izandakoarekin alderatzen dituzte egoerok, irtenbide bat ematen dute eta hori arrakastatsua izan

den edo ez baloratzen dute, ondorioak euren ezagutzari gehituz. Beste robot batzuk, ordea, komunikatzeko gaitasunetan oinarritzen dira; gure Kixmi, esate baterako. Elkarriketa eraginkor bat izateko, besteak beste, enpatia, hitzezkoa ez den komunikazioa eta esamolde edo lokuzioak ulertzea badira ezinbestekoak. Eta guretzat ironia eta txisteak ulertzea gatza bada, pentsa ezazue "traste" baterako! Eta etika.

Isaac Asimov zientzialari eta idazleak *Ni, robota* eleberrian (1942) robotek jarraitu beharreko legeak definitu zituen:

1. Robot batek ezin dio gizaki bati kalterik egin, ezta gizakiak kalterik jasan dezan utzi edo onartu ere.

2. Robot bat gizakien aginduak bete behar ditu, betiere lehenengo legea urratzen ez badute.

3. Robot batek bere burua babestu behar du, betiere lehenengo eta bigarren legeak urratzen ez baditu.

Zuzenak eta nahikoak ote dira lege horiek gurekin lanean jardungo duten robotentzat? Eurek erabaki baino lehen, hobe guk, denon artean, erabakitzen badugu.

AmAr
ileapaindegia

Asteartea-ostiralea:
9:00-19:00
Laburubata:
8:00-13:30

Uribe plaza, 1 beheko
Zamudio
94 4520419

Carrefour
express

ORDUTEGIA
Asteleheneetik ostiralera arte
9:00-14:30 / 17:00-20:30
Larunbatean
9:00-14:30

Pago kalea, 5
48170 ZAMUDIO

Txinbo kalea, 9
48170 ZAMUDIO
94 452 26 75

CAFE-BAR
BIDE-GORRI

Askotariko pintxoak - Piater konbinatuak
8:00etatik irekia
WIFI gunea

Euskarak bere egin nau

t: Juan Luis Goikoetxea / a: Aritz Albaizar

Euskaraz bizi gara,
euskaragaz.

Euskararekin
eta
euskararen eskutik
bizi garanean,
hizkuntzak
bere egiten gaitu,
euskararen.
Izena emoten deusku:
euskaldun;
bihotza be bai:
ene laztana!
Bizipoza emoten deusku:
"Madalen Busturiko gauean, gauean...".
Baita lekuak be:
Iturrigorri, Aizkorri, Baigorri.
Lilura sortzen deusku:
"Zure begi ederrok".
Dolua:
"Urepeleko artzaina".

Ni neu
-batera bizi garan ezker-
euskarak bere egin nau;
gatibaturik nauka
libre nintzana.



ZAMUDIO-DERIOKO LURLANGILEEN ETXEA
Santi Mami auzoa, 1
Tel.: 94 454 10 06
Faxa: 94 454 12 15
48170 Zamudio (Bizkaia)



SANTI MAMI
ALBAILARITZA
Nerea Pedrosa Culp. 517
COOP. GANADERA ZAMUDIO DERIO
Tel.: 94 454 13 77 - 689 04 31 15
Faxa: 94 454 12 15

Peñasko
arraindegia



Mendiko, 4
48170 Zamudio
Tel.: 94 452 0808

Abelino Arraindegia



Gorbea kalea, 4 - 48160 DERIO
T: 94 602 75 25-6

 **ZAMUDIO**
Loteria Nacionala

Leizaola L. plaza, 7
Tel.: 94 452 09 59
Faxa: 94 656 69 95
josuastorkiza@gmail.com

ADARVE KAFETEGIA

Gosariak
Plater konbinatuak
Pintxoak
GIRO ONA

Sollube, 2 DERIO
Tel: 94 608 95 31



a: www.lasrecetasdemartuka.com

Ahuakate, ganba eta gula-entsalada

Osagaiak:

- Ahuakate bi
- 300 g ganba
- 200 g gula
- Berakatz-atal bat
- Kaiena
- Oliba-orioa
- Jerez-ozpina
- Gatza

Prestetako erea:

Lehenengo eta behin, ganbaz eginiko ozpin-orioa prestaiko dogu. Horretarako, ganbak zurituko doguz, eta buruak eta azalak oriotan sueztituko doguz. Iraziko dogu, gogor sakatzuz, zukua bota dagien,

eta orio gehiago gehituko dogu. Gatz eta ozpin apur bat botako dogu eta irabiaren joango gara, ozpin-orioa emulsionau daiten.

Berakatz xerretan ebagi eta kaiena-gaz batera salteauko dogu oriotan. Gulak eta ganbak gehitu eta surtan itxiko dogu, harik eta ganbak apur bat gorritzen diran arte. Ahuakatea be xerretan ebagiko dogu. Katilu baten ahuakate-xerrak ipiniko doguz, gulak eta ganbak berakatzagaz. Ozpin-orioa bota eta mahaira aterako dogu.

Presaka bagabilz, ozpin-orio arrunta egin daikegu, edo maionesea bota. Ganba egosiak be erabili daitezke.

Etxeko sukaldaritza

Kereizak, ardao baltzagaz

t: Maite Lekerika

Osagaiak:

- 700 g kereiza
- 300 g azukera
- 300 ml ardao baltz
- Kanela-txotx bat

Prestetako erea:

Eltze baten, ardaoa, azukerea eta kanelea egosiko doguz 10 minutuan. Kereizak gehituko doguz (hazur barik, hobeto), eta su eztitan egosiko doguz 30 minutuan. Kereizak atera eta gordeko doguz. Saldea 15-20 minutu gehiago egosiko dogu, harik eta krema bat egiten dan arte. Kereizak gehituko doguz. Hotzitzen itxiko dogu eta mahaira aterako dogu.



a: www.cerezasdelbierzo.com

ARINKA KASTEGIA
Goiko kalea, 6 DERIO
LH - DBH - BATX.
INGELES - MARRAZKETA
ERROBOTIKA
TAILERRAK / ESKOLA LAGUNTZA
944 544 753 695 78 77 74
www.arinkakopidenda.com arinkakastegia.blogspot.com

Jatetxea **SAN ISIDRO**
EUSKO OKELETAN ESPEZIALIZATUA ETA ETXERKO GOROGINTZA APARTA
ESKONTZAK, BATAIOAK, JAUNARTZEAK
Karta zerbitzua - Laneko zerbitzuak - Jantoki pribatuak
Jantoki bakoitzean 180 toki - Sukaldaritza tradizionala
Telefonoa 94 454 07 58 Fax 94 454 14 10 Mungaiate etorbidea, 35 48160 DERIO

t i k t a k EGUNEKO MENUA
lehenengo platera
bigarren platera
postrea
ogia
edaria 9€
Bestorrene 5, Behea 48160 DERIO
T: 94 454 55 55

aldeko one
hortz klinika
Tel.: 94 454 15 87
Anuska Prieto Aguilar
Odontologoa
Urte 7, behea
48160 DERIO (Bizkaia)
-Especialitate guztiak
zentro bakar batean
-Aurrekontua doan
-Especialitateak:
umeak

Nire Autoocasion NA
IMPORTAZIOA ETA
SALMENTA
GERNIKAKO ARBOLA 10 (TRASERA) 48160 DERIO-BIZKAIA
Mobilak: 686 97 06 41 - 649 16 77 12
Telefonoa-Fax: 94 454 51 92
www.nireautoocasion.com info@nireautoocasion.com

HAUR-MODA
Tximeleta
Gernikako Arbola, 8 DERIO
94 454 14 35



Zer irakurri?

Josune Aurrekoetxea Aperribai (Liluratura taldea)

Idazlea: Karlos Linazasoro

Ilustratzailea: Bruno Hidalgo

Genero: Komedia

Argitaletxea: Elkar (Xaguxar)

Orrialde kopurua: 94

Adina: 12 urtetik aurrera

Anbulatorio bateko itxarongelan hasten da istorio surrealista hau. Udaberriko eguna da eta Tripoli doktorea Olga Tokarczukowa bere erizainarekin prest dago goizeko zortzietan gelako gaixoak artatzen hasteko. Itxarongela txikia izan arren, lepo dago. Hasierako gaixoa Tripoli doktorea bera da. Udaberria denez, geranio eder bat ateratzen zaio sudurrean sendagileari, eskuineko zulotxotik zerurantz, gorantz, egiten duena.

Hormako kontagailu erraldoia martxan jartzen da eta "lehenengo!"... Eskerrak, lehenengo gaixoa herriko lorezaina dela. Horrek, John Azurrok, mapamun-

Tripoli Doktorea

di bana du gingiletatik zintzilik. Tripolik prestatu ditu tresnak eta belarrietatik kendu dizkio baloitzar horiek. Ondoren, doktore batentzat sudurretik geranioa ateratzen zaiola itxura ez denez, gizonak soildu egiten dio. Mapamundiak eta geranioa elkartrukatu, eta alde egin du kalera txistuka.

"Aurrera bigarrena!" Indarrik gabe, pot eginda, eta ezkontzearen dagoen gaztea da. Bitaminak behar dituela erabaki du medikuak. Orduan, erizainak gazteari bere buharrera hurbil dadila agindu dio, mutilak bi trago luze edan eta istantean sekulako indar berebiziko bat nabaritu du gorputz osoan. Gazteak txistuka alde egin du kalerara.

"Hurrengo!" Eta horrela bata bestearen atzetik kontsultara sartzen doaz, bakoitzak bere aje xelebreak kontatzen eta mediku eta erizainak, aldi berean, senda-



bide zoroak, etxeko osabideak, ematen dizkiete. Gaixo bakoitzak atal bat hartzen du, hamar arte.

Elkarrizketetan oinarritzen dira kapituluak, narratzailearen presentzia txikia izanez. Testua oso arina da, beraz, orain, udan, irakurtzeko oso aproposa da hondartzan, igerilekuan... gauden bitartean. Fantasia maite dutenei eta umorea gustukoa dutenei zuzenduta dago. Pertsonaia bitxi horiekin oso ondo pasatuko duzue.

Azkenik, esan behar, Bruno Hidalgo pasaiatarra ilustratzaile bikaina dela. Oso irudi politak agertzen dira kapitulu guztietan.

ELORRIETA
INSTALACIONES

ETXE- ETA INDUSTRIA-ELEKTRIZITATEA

Urbe kalea, 12 beheko Derio 48160
94 454 03 86

639 57 98 48 - 639 58 25 47

BIZKARGI

TABERNA ETA JAHARIA

Urkiola, 6 DERIO

944541655

ASTIKENEMOTOR

www.ASTIKENEMOTOR.com

DERIO - 946 451 781



a: www.wikipedia.com

Irteerak

Zamudio

- > Pirinioak (Comapedros-Pica D' Estats). Uztailaren 1etik 3ra, Arroeta mendi taldeak antolatua.
- > Mirandaola eta Zumaia. Uztailaren 16an, Adintsuen taldeak antolatua.

Lezama

- > Panticosa. Uztailaren 22tik 25era, Gailur mendi taldeak antolatua.

Jaiak

Derio

- > Santiago eta Santa Ana. Uztailaren 25ean eta 26an, San Kristobal elizan.
- > San Inazio. Uztailaren 30ean eta 31n, San Isidro elizan.

Kirola

Zamudio

- > Triala. Uztailaren 23an, Kotxozulo parkean, Zamudio Racing elkarteak antolatua.

Bestelakoak

Derio

- > Nazioarteko folklore jaialdia. Uztailaren 31n, 13:15ean, San Isidro elizan.

Zamudio

- > Azaleko minbizia prebenitzeko kanpaina. Uztailaren 1ean, igerilekuan.
- > Ibilgailu klasikoaren kontzentrazioa. Uztailaren 10ean, Sabino Arana plazan.

Larrabetzu

- > Maialen Lujanbio eta Igor Elortza bertsolariak. Ekainaren 30ean, 19:00etan, Bersoa auzoan.

HARAGITEGIA
URDAITEGIA
IMAZ

MUNGIALDE ETORBIDEA,2
TELFOA: 94 454 10 75

DERIO
Eskerrik asko
etortzeagaitik

KAFETEGIA
IAZI
JATETxea

Jata kalea, 2 - DERIO
Tel.: 944 54 29 56

MARMOLGINTZA
GOYO

SUKALDE-GAINEKOAK OIRAK HILERRIAK

Ugaldeguren 1 ind. 18-B nabea
48160 Derio, Bizkaia
T: 94 454 02 93 - Faxa: 94 454 50 63

OSTEOPATIA-ZENTROA
ORDEZKO TERAPIAK

lasai

Luis M^a Asensio
Terapeuta naturopata

Larrabarri, 1 Iorja - 48160 DERIO
Tel: 94 454 10 28 - Sakelekoa: 655 74 24 69
osteopatiasalai@gmail.com

FRUTAK **BARAZKIAK**

Produktu ekologikoak
Hainbat ogi eta pastel

Gaztelumendi, 3 - behe | 48195 Larrabetzu | 94 455 89 19

SARRIKOLA
OGITEGIA

Euskal pastela
Baserriko ogia
Bizkotxoak
Hainbat tarta

Samikola, z/g Larrabetzu
Tel.: 94 455 83 37
619 78 58 84

Peluteria
Estetika

94 455 81 44
Angulen 2, behe Larrabetzu-Bizkaia

bai **euskarari**

ziurtagiriaren elkartea

Bai Euskarari Ziurtagiria,
alor sozioekonomikoaren euskalduntzean eragiten

urrats biziak

www.bai.euskarari.org

[/baieuskarariziurtagiria](https://www.facebook.com/baieuskarariziurtagiria) [@baieuskarari](https://twitter.com/baieuskarari) www.baisarean.org



TALLERES JUAN ANDRES
AUTOMOBILAREN ELEKTRIZITATEA ETA MEKANIKA
PUNTUAN JARTZEA

Torrearragoiti ind., 8 - 216 Pab.
Tel.: 94 452 07 09 48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

LEANDRO LANDETA



HARAGITEGIA-URDAITEGIA
Oiz. Kulea, 1 • Tel. 94 452 00 69 - 48170 ZAMUDIO



ASADOR FUENTENE berria
"ur eta itsasoko baserria"



Gosariak
Afariak
Enpresa-bazkariak
Ekitaldiak
Jantoki pribatuak

ESPEZIALITATEA:
Okela eta arraina
txingarretan erreta

LEKUNBIZ AUZOA 26
ZAMUDIO (BIZKAIA)
☎ 94 452 23 79
www.asadorfuenteneberria.com

GAMINIZ
JATETXEA



Tel/Fax: 944 317 025
email: gaminiz@gaminiz.com

Ibaizabal 212, Parke Teknologikoa
48170 Zamudio • Bizkaia
GPS: 2°51'41" W 43°17'37" N

www.gaminiz.com

ASESORÍA
Luis Fernando Aguirre, s.l.

Mateo Bidaurreazaga, 1
Tfno.: 94 453 33 28 - Fax 94 471 06 28
48150 SONDIKA (Bizkaia)



Kale garbiketa | Hondakinen bilketa eta garraioa | Ur eta estolda sareen mantentze lanak |
Hiri-aitzarien mantentze lanak | Lorezaintza zerbitzuak | Eraikin eta lokalen garbiketa |
Hondartzen garbiketa zerbitzuak | Garbiguneen kudeaketa eta mantentze lanak | Lurzoruen
deskontaminazio lanak | Ingurumen-aholkularitza | Beste zerbitzu batzuetarako, galdetu.

Astintze kalea, 6-A, 1. solairua, 48.340 Derio
TEL. 94 424 38 34

Konekta zaitez gurekin!

aikor!
Enpresen Aboluburua



Facebook:
aikor.txorierrikoaldizkaria



Twitter:
@AikorTxorierr



Webgunea:
www.aikor.com



LAGATZU EGUNA EUSKAL JAIA 2016



Ekainak 24
barikua

MUSIKA KALEAN
Fernan eta Natxo tabernen
arteko plazan

ARTEPEN ARTEA
ZAMUDION GEUREA, EUSKERA

Ekainak
25
zapatua

12:00 HERRI ANTZERKIA
ARTEPEN ARTEA ZAMUDION GEUREA, EUSKERA
Kultura Etxeko goiko patioan

13:00 KALE-JIRA-BIRA-DANTZA-POTEOA
Bertoko, Kantarelux eta bertsolariak - Hiru bat eta Gazte Alai

15:00 HERRI BAZKARIA, Kultura etxean 15 € nagusientzat, 10 € umeentzat.
Txartelak herriko denda eta tabernetan salgai. Azken eguna
ekainaren 21a, martitzena

17:00 TALDEKA KANTAU, TABERNA IBILTARIAgaz,
UMEEN JOKUAK "Artzainen joko eta jolasak" KULKI

20:00 ERROMERIA, TRIKIZIO taldeagaz Kultura Etxean

Zamudioko
talde
eta herritarren
ezinbesteko
laguntzea be
euki dogu



Animatu eta parte
hartu koadrileagaz
Jantzi zaitetz antzinako
euskal erropakaz!